



**AMURRIO**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

EUSKARA ARLOA

---

**AMURRIOKO UDALEKO  
IV.EUSKARA PLANA  
2018-2022**

# AURKIBIDEA

I.ATALA: EUSKARA PLANAK.....	3
1. Planaren testuingurua (4.or)	
2. Helburuak (7.or)	
3. Metodologia (7.or)	
4. Amurrioko Udala (8.or)	
4.1. Administrazio atalen sailkapena eta lehentasunak (8-10.or)	
4.2. Lanpostuen zerrenda (LPZ) (11-21.or)	
4.3. Atalen araberako sailkapena (22-24.or)	
4.2. Hizkuntzen erabilerarako jarraibideak (25-26.or)	
4.3. Prozedura eta edukiak (27.or)	
II.ATALA: UDALA: EGUNGO EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK.....	28
1. Udaleko egoera, helburuak eta normalizazio ekintzak (29.or)	
1.1. Langileen hizkuntza-gaitasuna (30-35.or)	
1.2. Udalbatzako ordezkarien hizkuntza gaitasuna (36.or)	
2. Helburuak eta proposamenak (37-40.or)	
2.2. Kanpo-harremanak (41-47.or)	
2.3. Barne-harremanak (48-52.or)	
2.4. Hizkuntza-paisaia (53-56.or)	
2.5. Baliabide informatikoak (57-58.or)	
III.ATALA: HIZKUNTZA IRIZPIDEAK .....	59
3.1.- Jarduera-esparru desberdinetarako hizkuntza-irizpideak (60.or)	
3.1.1 Hizkuntza prestakuntza eta etengabeko prestakuntza (60.or)	
3.1.2 Kontratazioak (61.or)	
3.1.3 Dirulaguntzak (62.or)	
3.1.3 Administrazioaren irudia eta argitalpenak (62.or)	
3.1.5 Ekitaldi publikoak (62.or)	
IV. ATALA: NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA AZPIEGITURA.....	63
4.1 Normalizazio-ekintzak eta baliabideak (64-66.or)	
4.2 Azpiegitura (67-69.or)	
V.ATALA: ERANSKINAK.....	70
A. Euskararen barne eta kanpo erabilera sustatzeko arlokako ekintza plana (71-79.or)	
B. Langileak kontratazeko irizpideak (80-82.or)	
C. Langileen sentsibilizazioa (83-87.or)	
D. Udal Musika Eskolako Euskara Plana (88-92.or)	

**EUSKARA**  
**PLANAK**  
**I.ATALA**

## PLANAREN TESTUINGURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Euskadiko Udalen Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du eta administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarri ere badira.

Honi loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan duen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan da.

Bigarren plangintzalditik seigarren plangintzaldirakoak araupetzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, elementu berriak erantsi dizkie lehenengo plangintzaldiko arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman baziren euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileen kopuruan, bigarren plangintzalditik aurrera administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira. Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Urrats horiekin loturik, Amurrioko Udalak, beraz, indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko plana landu eta onartuko du, dokumentu honetan azaltzen denez.

### Amurrioko Udalaren antolaketa

Amurrioko Udalaren IV. Euskara Plana aztertzerako orduan, tokiko erakundearen egungo antolaketa zein Lanpostuen Zerrenda (LPZ aurrerantzean / RPT) hartu dira kontuan. Lehenbizikoa, egoera eta proposamenak zehazteko baliatu da (udal antolaketa), eta bigarrena, bilakaera aztertzeko (izan ere, aurreko planak LPZren arabera neurtu dira, eta egitura zein plana bera egokitu behar izan dira egoera berri horretara.

ALKATETZA		
LURRALDEITASUNA	ANTOLAKUNTZA	HERRITARTASUNA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hirigintza</li><li>• Mendia eta Ingurumena</li><li>• Lanak eta zerbitzuak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzu ekonomikoak</li><li>• Idazkaritza</li><li>• HAZ</li><li>• Giza baliabideak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzu Soziokulturalak</li><li>• Gizarte Zerbitzuak</li><li>• Udaltzaingoa</li><li>• Atezainak</li></ul>

Amurrioko IV. Euskararen Planak nola eragingo duen ulertzeko, dotazio zenbakiaren eta udal antolaketaren arabera sailkatu dira beharginak:

## ALKATETZA, IDAZKARITZA, HAZ

### IDAZKARITZA

- 201 Idazkari orokorra
- 221-4 Kudeaketako administraria

### HAZ

- 213-2 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-3 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-4 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-5 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-6 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-9 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea

## LURRALDE TASUNA

### HIRIGINTZA

- 202 Zerbitzu Oroker eta Hirigintzako burua
- 209 Arkitektua
- 210 Arkitektu Teknikoa
- 221-3 Kudeaketako administraria
- 213-8 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- Lanpostu hutsak: 2 (213-1 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea-aniztasun funtzionalerako plaza, 216 Hirigintza eta obretako koordinatzailea)

### MENDIA ETA INGURUMENA

- 211 Natur Ingurunearen Kudeaketa Saila
- 212 Ingurumen Kudeaketa Saila
- 217 Baso eta inguru naturaleko teknikari laguntzailea
- 221-1 Kudeaketako administraria

### LANAK ETA ZERBITZUAK

- 401 Lan arduraduna
- 402 Zerbitzuetako Enkargatua
- 403-1 Lan brigadetako gidari ofiziala
- 403-2 Lan eta zerbitzuetako gidari ofiziala
- 403-3 Mantenuko ofiziala
- 404-1 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parkeak eta lorategiak
- 404-2 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parkeak eta lorategiak
- 404-3 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parkeak eta lorategiak
- 404-4 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parkeak eta lorategiak
- 404-5 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parkeak eta lorategiak
- Lanpostu hutsak: 2 (403-4 Lorazain ofiziala, 403-5 Igeltsero ofiziala)

## ANTOLAKUNTZA

### GIZA BALIABIDEAK

- 203 Enplegu eta Pertsonal alorreko teknikaria
- 213-5 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea

#### ZERBITZU EKONOMIKOAK

- 221-5 Kudeaketako administraria
- 221-6 Kudeaketako administraria
- 221-7 Kudeaketako administraria
- 301 Kontuhartzaile orokorra (Jabe gabe dago postua, 302 dotazioko titularra betetzen ari da funtzio hau gaur egun)
- 302 Kontabilitate, Errenta eta Diru bilketako burua (301 dotazioan diharduen langilearena da jabetza, 215 dotazioaren jabea -Idazkaritzako koordinatzailea- ari da betetzen 302 dotazioaren funtzioa gaur-gaurkoz)
- 303-1 Zerbitzu Ekonomikoetako teknikaria
- 303-2 Zerbitzu Ekonomikoetako teknikaria
- Lanpostu hutsak: 1 (221-2 Kudeaketako administraria)

### HERRITARTASUNA

#### ZERBITZU SOZIOKULTURALAK

- 200 Kirol koordinatzailea (Jabe gabe dago postua)
- 204 Kultur Agenda eta Jaietako koordinatzailea
- 207-1 Liburuzaina
- 207-2 Liburuzaina
- 208 Giza Kultur animatzailea
- 213-7 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 213-10 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
- 214 Zerbitzu Soziokulturalean koordinatzailea
- 218 Euskara Teknikaria (Ez da interinotzat jasotzen LPZn)
- 220 Partehartze Teknikaria (Jabe gabe dago postua)

#### GIZARTE ZERBITZUAK

- 205 Gizarte langileen koordinatzailea
- 206-1 Gizarte langilea
- 206-2 Gizarte langilea
- (213-11 Zeregin anitzetako administrari laguntzailearen ordezkoa)
- 219 Berdintasun Teknikaria (Ez da interinotzat jasotzen LPZn)

#### UDALTZAINGOA

- 501 Udaltzainburua
- 502-1 Udaltzaina
- 502-2 Udaltzaina
- 502-3 Udaltzaina
- 502-4 Udaltzaina
- 502-5 Udaltzaina (503-2 udaltzain kabu funtzioa betetzen dago gaur-gaurkoz)
- 502-6 Udaltzaina
- 502-7 Udaltzaina
- 502-8 Udaltzaina
- 502-9 Udaltzaina
- 502-10 Udaltzaina
- 503-1 Udaltzain kabua
- Lanpostu hutsak: 2 (503-2 eta 503-3 Udaltzain kabuak)

#### ATEZAINAK

- 405-1 Zabalekoko atezaina
- 405-2 Mendikoko atezaina

## HELBURUAK

Herri Administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara-planen **helburu nagusia**, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara Planon **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. **Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuta.
2. **Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza** izan dadin bermatzea.
3. **Hala dagokionean, Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.**

Testuinguru honetan EAEko Euskararen Erabilera Araukotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri-administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzearren. Horrela, EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri-administrazioek, besteak beste, bertako langileek bere lan-eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntzaren ezagutza-maila egokia lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintzaldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintzaldian egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Bigarren plangintzalditik aurrera egin beharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza-egoeratik abiatuz *Euskararen erabilera normalizatzeko planak* [Hemendik aurrera "Euskara Plana" deituko zaie] zehaztea eta abian jartzea izango da.

## METODOLOGIA

Herri Administrazioetan euskararen erabilera era mailakatuan indartu eta areagotzeko asmoz sortu zen "AEBE" programa (Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoak). Programa honek erakundeen derrigortasun-indizearen arabera bete beharreko helburuak finkatzen lagundu zuen; hizkuntza-egoera zehazteko eta euskara-planaren diseinua egiteko bidea emanaz; planaren garapenerako tresnak zehaztuz eta ordenatzeko argibideak emanaz, azken batean, jarraipena eta ebaluaketa egiteko mugarrak finkatu zituen.

Programa hau martxan jarri eta garatzeko "Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoen Metodologia (AEBEMET)" tresna metodologikoa sortu eta garatu zen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik. Aurreko plangintzaldian IRATI programa erabiltzea proposatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, pareko helburuak mantenduta. Plangintzaldi honetarako berriz, HIZKETA - Hizkuntzen Kudeaketarako aplikazio informatiko bat du eta bertan administrazio bakoitzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari jarraipena egiteko datuak biltzeko aukera ematen da. Aplikazio informatiko horren bidez, besteak beste ondoko datuak jasotzen dira: hizkuntza gaitasuna, ahozko komunikazioa, idatzizko komunikazioa, itzulpenak, langileen prestakuntza orokorra, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet sarea, argitalpenak, hizkuntza paisaia, iragarkiak, diru-laguntzak eta kontratazio administratiboak. Amurrioko Udalaren 2018-2022 EENPren tarteko ebaluazioa eta bukaerako ebaluazioa egiteko aplikazio informatiko hau erabiliko da.

## Ezaugarriak:

1. Erakunde osoa hartzen du kontuan: egitura, funtzionamendu eta administrazio-atal desberdinen egoera.
2. Erakundearen helburu funtzionalak hartzen ditu kontuan eta erakundearen egoera soziolinguistikoari egokitutako lehentasunak finkatzen ditu.
3. Hasieratik helburu zehatzak, lorgarriak eta neurgarriak jartzen ditu.
4. Planaren proposamenean eta inplementazioan langileen partehartzea sustatzeko bideak ezartzen ditu, eta erabilera planetan parte hartzea borondatezkoa izango da.

## AMURRIOKO UDALA

### ADMINISTRAZIO ATALEN SAILKAPENA ETA LEHENTASUNAK

86/97 Dekretuan (86/1997, apirilaren 15ekoa euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena) administrazio-atalen izaeraren araberrako hurrengo sailkapena jasotzen da:

- [Jendaurreko atala](#): Zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuaerakiko harremanetan oinarritzen denean
- [Gizarte-izaerako atala](#): Herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean
- [Atal Orokorra](#): bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- [Atal Berezia](#): Atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantentze eta kontserbazio lanak; obra, garbiketa eta abarrak edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzten instalakuntza zein ekipoen, laborategi eta antzekoen mantentze- eta kontserbazio-zereginetan.

### Indarrean dagoen araudiari jarraituz bete beharreko helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua dagoeneko seigarren plangintzaldian dago, 2018-2022 epealdiari dagokionean hain zuzen ere. 2016ko erroldaren arabera Amurrioko Udalarari dagokion derrigortasun-indizea [euskaldunak 3.372 + (ia-euskaldunak 1.967 / 2) / 10.008] %43,52koa da (11. art.), hortaz, apirilaren 15eko 86/97 DEKRETUAREN arabera, 2. Helburu mailakatu betetzea dagokio VI. plangintzaldi honetarako (17 b) artikulua). Bigarren helburu mailakatuari lotuta, 86/97 DEKRETUAK dioenari jarraituz, Amurrioko Udaleko atalak era honetan sailkatu dira, erakundearen antolaketa atalak (LPZ) ardatz hartuta. Gaur-gaurkoz LPZko 72 postutik 7 hutsik daude. Egun, beteta dauden plazak 65 dira, ondorioz. Portzentaiak udal langileen masarekin alderatuta (beteta dauden 65 lanpostuak) ondorengo ondorioak atera daitezke:

	GUZTIRA	JENDAUURREKOAK	GIZARTE IZAERA	OROKORRA	BEREZIAK
LANPOSTUAK	65	14	26	15	10
HE EGIAZTATUA	44	13 (%92,85)	19 (%73,07)	8 (%53,33)	4 (%40)
HE EGIAZTATU GABE	22	1 (%7,14)	7 (%26,92)	7 (%46,66)	6 (%60)
HE EGIAZTATU GABE ETA DERRIGORTASUN DATA EZARRITA	2	0	0	2 (%13,33)	0



Lanpostu hutsak kontuan hartu gabe (5/72) ondorengo da Amurrioko Udaleko atalen sailkapena langileka:

AMURRIOKO UDALEKO ATALAK : JENDAURREKOAK (14)	
ALKATETZA ETA GOBERNUA: (221-4 Alkatearen idazkaria)	1
ZERBITZU OROKORRAK, KOMUNITATEKOAK ETA HIRIGINTZA	12
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 213-2 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Alkatetza, idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 213-3 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Alkatetza, idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 213-4 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Alkatetza, idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 213-6 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Alkatetza, idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 213-7 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Zerbitzu soziokulturalak)</li> <li>- 213-8 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Lurraldetasun arloa)</li> <li>- 213-9 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Alkatetza, idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 213-10 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Zerbitzu soziokulturalak)</li> <li>- 213-11 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Gizarte Zerbitzuak)</li> <li>- 221-1 Kudeaketako administraria (Lurraldetasun Arloa)</li> <li>- 405-1 Zabaleko Hlko atezaina</li> <li>- 405-2 Mendiko Hlko atezaina</li> </ul>	
ZERBITZU EKONOMIKOAK: Zergabilketako administraria (302)	1
GIZARTE IZAERAKOAK (26)	
ALKATETZA ETA GOBERNUA: Kirol koordinatzailea (200)	1
ZERBITZU OROKORRAK, KOMUNITATEKOAK ETA HIRIGINTZA	13
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 204 Kultur agenda eta Jaietako koordinatzailea</li> <li>- 205 Gizarte Langileen koordinatzailea</li> <li>- 206-1 Gizarte langilea</li> <li>- 206-2 Gizarte langilea</li> <li>- 207-1 Liburuzaina</li> <li>- 207-2 Liburuzaina</li> <li>- 208 Giza Kultur animatzailea (Kultur Teknikaria)</li> <li>- 211 Natur Ingurugune Kudeaketa Saila</li> <li>- 212 Ingurugiro Kudeaketa Saila</li> <li>- 214 Zerbitzu Soziokulturaletako koordinatzailea</li> <li>- 218 Euskara Teknikaria</li> <li>- 219 Berdintasun Teknikaria</li> <li>- 220 Partehartze Teknikaria</li> </ul>	
UDALTZAINGOA: Udaltzainburua, udaltzain kabua, udaltzainak	12
OROKORRAK (15)	
ZERBITZU OROKORRAK, KOMUNITATEKOAK ETA HIRIGINTZA	15
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 201 Idazkari orokorra (Alkatetza, Idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 202 Zerbitzu orokorretako eta Hirigintza burua (Alkatetza, Idazkaritza eta HAZ)</li> <li>- 203 Enplegu eta Langilegoko koordinatzailea (Giza Baliabideak)</li> <li>- 209 Arkitektua (Lurraldetasun arloa)</li> <li>- 210 Arkitektu teknikoa (Lurraldetasun arloa)</li> <li>- 213-5 Zerbitzu anitzetako administrari laguntzailea (Giza baliabideak)</li> <li>- 215 Idazkaritza Zerbitzuko koordinatzailea (Alkatetza, Idazkaritza eta HAZ)</li> </ul>	

<ul style="list-style-type: none"> <li>- 217 Baso eta Inguru Naturaleko teknikari laguntzailea (Lurraldetasun arloa)</li> <li>- 221-3 Kudeaketako administraria (Lurraldetasun arloa)</li> <li>- 221-5 Kudeaketako administraria (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> <li>- 221-6 Kudeaketako administraria (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> <li>- 221-7 Kudeaketako administraria (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> <li>- 301 Kontuhartzaile orokorra (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> <li>- 303-1 Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> <li>- 303-2 Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria (Zerbitzu Ekonomikoak)</li> </ul>	
BEREZIAK (10)	
LANAK, ZERBITZUAK, MENDIAK	10
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 401 Obra eta Zerbitzu Brigada / Lan arduraduna</li> <li>- 402 Lorategi brigada / Zerbitzuetako Enkargatua</li> <li>- 403-1 Obra eta Zerbitzu Brigada / Lan brigadetakoa gidari ofiziala</li> <li>- 403-2 Obra eta Zerbitzu Brigada / Lan eta Zerbitzuetako gidari ofiziala</li> <li>- 403-3 Obra eta Zerbitzu Brigada / Mantenuko ofiziala</li> <li>- 404-1 Obra eta Zerbitzu Brigada / Ofizioetako laguntzailea</li> <li>- 404-2 Obra eta Zerbitzu Brigada / Ofizioetako laguntzailea</li> <li>- 404-3 Obra eta Zerbitzu Brigada / Ofizioetako laguntzailea</li> <li>- 404-4 Lorategi brigada / Ofizioetako laguntzailea</li> <li>- 404-5 Lorategi brigada / Ofizioetako laguntzailea</li> </ul>	

**LANPOSTUEN  
ZERRENDA  
ETA HIZKUNTZA  
ESKAKIZUNAK**

RPT	ARLOA	SAILA	DOTAZIOA	POSTUA	EZARRITAKO HE	EGIAZTA TUA	DERRIGOR TASUN DATA	ATALA
Alkatetza	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	200	Kirol koordinatzailea*	3HE	4HE	2001/12/31	Gizarte izaera
ZOHK	Alkatetza, idazkaritza, HAZ	Idazkaritza	201	<b>Idazkari Orokorra</b>	<b>4HE</b>	<b>3HE</b>	<b>2016/01/01</b>	<b>Orokorra</b>
ZOHK	Lurraldetasuna	Hirigintza	202	Zerbitzu Orokor eta Hirigintzako burua	3HE	3HE	2008/01/01	Orokorra
ZOHK	Antolaketa	Giza baliabideak	203	Enplegu eta pertsonal alorreko Teknikaria	3HE	1HE		Orokorra
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	204	Kultur Agenda eta Jaietako Koordinatzailea	4HE	3HE		Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Gizarte zerbitzuak	205	Gizarte langileen Koordinatzailea	3HE	3HE	1993/06/01	Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Gizarte zerbitzuak	206-1	Gizarte langilea	3HE	0		Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Gizarte zerbitzuak	206-2	Gizarte langilea	3HE	3HE	2019/01/01	Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Liburutegia	207-1	Liburuzaina	3HE	3HE	2001/07/01	Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Liburutegia	207-2	Liburuzaina	3HE	3HE	2001/07/01	Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	208	Giza-Kultur animatzailea (Kultura Teknikaria)	3HE	3HE	1994/10/01	Gizarte izaera

ZOHK	Lurraldetasuna	Hirigintza	209	Arkitektoa	3HE	1HE		Orokorra
ZOHK	Lurraldetasuna	Hirigintza	210	Arkitektu Teknikoa	3HE	3HE		Orokorra
ZOHK	Lurraldetasuna	Ingurumena eta mendiak	211	Natur Ingurunearen Kudeaketa Saila	3HE	3HE	2010/01/01	Gizarte izaera
ZOHK	Lurraldetasuna	Ingurumena eta mendiak	212	Ingurumen Kudeaketa Saila	3HE	2HE		Gizarte izaera
ZOHK	Lurraldetasuna	HUTSIK	213-1	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (Aniztasun funtzionalerako gordetako plaza)	2HE	HUTSIK	1998/01/01	
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	HAZ	213-2	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE	2005/06/01	Jendaurrekoa
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	HAZ	213-3	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE	1992/02/01	Jendaurrekoa
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	HAZ	213-4	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	2HE	1998/04/30	Jendaurrekoa
ZOHK	Antolaketa	Giza baliabideak	213-5	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	2HE		Orokorra

ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	Idazkaritza	213-6	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE		Jendaurrekoa
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	213-7	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE	1998/04/30	Jendaurrekoa
ZOHK	Lurraldetasuna	Ingurumena eta mendiak	213-8	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE	2001/07/01	Jendaurrekoa
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	HAZ	213-9	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	3HE	2015/05/01	Jendaurrekoa
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	213-10	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea	2HE	2HE	2001/07/01	Jendaurrekoa
ZOHK	Herritartasuna	Gizarte zerbitzuak	213-11	Zeregin anitzetako administrari laguntzailea*	2HE	2HE	2017/12/31	Jendaurrekoa
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	214	Zerbitzu Soziokulturalen koordinatzailea	4TG	4HE		Gizarte izaera
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	HAZ	215	Idazkaritzako koordinatzailea*	3HE	3HE	2016/05/01	Orokorra
ZOHK	Lurraldetasuna	HUTSIK	216	Hirigintza eta obretako koordinatzailea	3HE	3HE	2016/05/01	

ZOHK	Lurraldetasuna	Ingurumena eta mendiak	217	Baso eta inguru naturaleko Teknikari laguntzailea	2HE	2HE	2017/12/31	Orokorra
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	218	(Euskara Teknikaria)*	4TG	4HE		Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	219	(Berdintasun Teknikaria)*	3HE	3HE	2019/01/01	Gizarte izaera
ZOHK	Herritartasuna	Zerbitzu soziokulturalak	220	Partehartze Teknikaria*	3HE	3HE	2020/01/01	Gizarte izaera
ZOHK	Lurraldetasuna		221-1	Kudeaketako administraria	2HE	2HE	2008/01/01	Jendaurrekoa
ZOHK	HUTSIK	HUTSIK	221-2	Kudeaketako administraria	2HE		2017/12/31	
ZOHK	Lurraldetasuna	Hirigintza	221-3	Kudeaketako administraria	2HE	1HE		Orokorra
ZOHK	Alkatetza eta idazkaritza	Alkatetza	221-4	Kudeaketako administraria	2HE	0		Jendaurrekoa
ZOHK	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	221-5	Kudeaketako administraria	2HE	2HE	1994/06/01	Orokorra

ZOHK	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	221-6	Kudeaketako administraria	2HE	3HE		Orokorra
ZOHK	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	221-7	Kudeaketako administraria	2HE	2HE		Orokorra
Zerbitzu ekonomikoak	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	<b>301</b>	<b>(Kontuhartzaile Orokorra)*</b>	<b>4HE</b>	<b>2HE</b>	<b>2014/01/01</b>	<b>Orokorra</b>
Zerbitzu ekonomikoak	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	302	Kontabilitate Errenta eta Diru bilketako burua*	3HE	3HE		Jendaurrekoa
Zerbitzu ekonomikoak	Antolaketa	Amurrio Bidean	303-1	Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria	3HE	2HE		Orokorra
Zerbitzu ekonomikoak	Antolaketa	Ogasuna eta aurrekontuak, zergak eta kontabilitatea	303-2	Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria	3HE	2HE		Orokorra
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta Zerbitzuak	401	Obra arduraduna	2HE	1HE		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Lorategi brigada	402	Zerbitzuetako enkargatua	2HE	0		Atal berezia



Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	403-1	Lan Brigadetako gidari ofiziala	1HE	0		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	403-2	Lan eta Zerbitzuetako gidari ofiziala	1HE	2HE		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	403-3	Mantenuko ofiziala	1HE	1HE		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	HUTSIK	403-4	Lorezain ofiziala*	1HE			
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	HUTSIK	403-5	Igeltsero ofiziala*	1HE			
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	404-1	Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak*	1HE	0		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	404-2	Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak*	1HE	0		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	404-3	Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak*	1HE	0		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Obrak eta zerbitzuak	404-4	Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak*	1HE	2HE		Atal berezia

Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Lurraldetasuna	Lorategi brigada	404-5	Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak	1HE	2HE		Atal berezia
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Herritartasuna	Atezainak	405-1	Zabaleko Hiko atezaina	2HE	3HE	2005-06/01	Jendaurrekoa
Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak	Herritartasuna	Atezainak	405-2	Mendiko Hiko atezaina	2HE	2HE	2002/08/01	Jendaurrekoa
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	501	Udaltzainburua	2HE	2HE	2012/12/31	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-1	Udaltzaina	2HE	3HE	04/08/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-2	Udaltzaina	2HE	3HE	2008/01/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-3	Udaltzaina	2HE	3HE	2011/01/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-4	Udaltzaina	2HE	3HE	2018/08/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-5	Udaltzaina	2HE	2HE	2018/08/01	Gizarte izaera

Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-6	Udaltzaina*	2HE	3HE	2018/08/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-7	Udaltzaina	2HE	0		Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-8	Udaltzaina	2HE	1HE		Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-9	Udaltzaina*	2HE	0		Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	502-10	Udaltzaina*	2HE	'		Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	503-1	Udaltzain kabua	2HE	2HE	2014/01/01	Gizarte izaera
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	503-2	Udaltzain kabua (Hutsik dago baina udaltzain bat dago betetzen postua)*	2HE		2015/01/05	
Udaltzaingoa	Herritartasuna	Udaltzaingoa	503-3	Udaltzain kabua	2HE		2015/01/05	

\*OHARRA: Izartxoak duten dotazioen oharra 5-7.orrietan jasota daude. Ondorioak, beraz, ondorengoak dira.

## ONDORIOAK

- Amurrioko Udalean 72 lanpostutik 7 daude hutsik gaur-gaurkoz. Ondorioz, 65 langileren esku daude zerbitzu eta arlo guztiak.
- Langile guztietatik 21ek ez dute betetzen hizkuntza eskakizuna une honetan (%32,31, 21/65). Alegia, %67,69k (44/65) egiaztatua du bere lanpostuari dagokion hizkuntza maila.
- Langile guztietatik 39k (39/72)daukate derrigortasun data ezarrita (%54,17), eta horietatik 2k ez dute betetzen gaur egun dagokien hizkuntza eskakizuna (%5,12).

	LANGILE KOPURUA	%
LANGILE KOPURUA LPZ	72	-
PLAZA HUTSAK	7	%9,72 (7/72)
UDAL LANGILEAK (PLAZA HUTSAK KENDUTA)	65	-
<b>HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZEN EZ DUTEN LANGILEAK GUZTIRA</b>	<b>21</b>	<b>%29,17 (21/65)</b>
<b>DERRIGORTASUN DATA EZARRITA DUTEN LANGILEAK (39 dira, baina 5 hutsik daude)</b>	<b>39</b>	<b>%54,17 (39/72)</b>
DERRIGORTASUN DATA EZARRITA ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZEN EZ DUTEN LANGILEAK	2	%5,12 (2/39)
HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN BAT EGIAZTATUTA DUTEN LANGILEAK	55	%84,62 (55/65)
HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK EGIAZTATUTA EZ DUTEN LANGILEAK	10	%15,38 (10/65)

GUZTIRA	KOPURUA	DERRIGORTASUNA	%	EGIAZTATUTA	%
BEREZIAK	10	0	%0,00	4	%40
GIZARTE IZAERA	26	18	%66,67	19	%73,08
JENDAURREKOAK	14	11	%84,62	13	%92,86
OROKORRAK	15	6	%37,50	8	%53,33
HUTSIK	7	4	%66,67	0	0
GUZTIRA	72	39	%54,17	44	%67,69

### Euskarazko administrazio-atalak

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, beren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak. Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak.

Lehentasunak finkatzeko orduan, atalak, bere osotasunean, baldintzak betetzen ez dituztenean, azpiatalak egiteko aukera izango da.

### Baldintzak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz, atala elebidun izendatzeko kontuan hartu beharreko baldintzak hauetxe dira:

1. Atala osatzen duten lanpostu guztiek edo ia guztiek (%80ek) derrigortasun-data izatea euren lanpostuetan.
2. Ataletako langile guztiek edo ia guztiek (%80ek) nor bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea. 4HE duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak 3HE egiaztatuta izatea. (Atalen izendapena egiteko Derrigortasun data izan eta salbuetsita daudenak ere kontuan hartu dira egiaztatze kopuruaren aldetik, hau da, egiaztatuta izan behar dute benetako baldintzak betetzeko).
3. Atalburuak derrigortasun data izatea eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.

### Amurrioko Udalaren sailkapena: atal elebidunak

Horrenbestez, Amurrioko Udalean dauden administrazio-ataletatik, ondorengoak dira atal elebidunetan kokatu beharreko arloak:

- [ZERBITZU SOZIOKULTURALAK \(%100\)](#) (200.- Kirol teknikaria, 204.- Kultura Agenda eta Jaietako koordinatzailea, 208.- Animatzaile Soziokulturala, 214.-Zerbitzu soziokulturaletako kudeatzailea, 213-10 Kultura administrari laguntzailea, 213-7 Hezkuntza eta beste alorretako administrari laguntzailea, 218.- Euskara teknikaria, 219.- Berdintasun teknikaria eta 220.- Partehartze teknikaria).
- [LIBURUTEGIA \(%100\)](#) (bi liburuzainek egiaztatuta dute dagokien HE eta derrigortasun data ezarrita dute)
- [ALKATETZA, IDAZKARITZA ETA HAZ \(%87,5\)](#): Arlo honetako 2 dotazioak (201ak eta 221-4k ez dute postuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzen (dena den, 201 Idazkari Orokorrak 3HE du; 4.HE exijitu arren kontuan hartzen da atal elebidun izendatzerako orduan). Gainontzeko dotazioek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua dute (213-2, 213-3, 213-4, 213-6, 213-9 eta 215 kodedunek, hain zuzen).
- [ATEZAINAK \(%100\)](#) (405-1 eta 405-2 ikastetxeetako atezainak)

Bestalde, atal elebidun izatetik gertu daude:

- [GIZARTE ZERBITZUAK \(%75\)](#): %75ak du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta.
- [UDALTZAINGOA \(%66\)](#): %66,67k du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta.
- [LURRALDE TASUNA \(%66\)](#): %66,66ak du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Azpimarratzekoa da, halaber, mendi-ingurumen arloak atal elebidunaren izaera hartuko lukeela 212.- Ingurumen Kudeaketa Saileko langileak hizkuntza eskakizuna beteko balu (%75ean dago sail hau, gaur-gaurkoz). Hirigintzan, berriz, %40ak du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta.

**Horrela, Amurrioko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Planak honela eragingo du Udalean:**

	ATAL ELEBIDUNAK
Zerbitzu soziokulturalak (8 langile)	200 Kirol koordinatzailea 204 Kultura, agenda eta jaietako koordinatzailea 208 Animatzaile soziokulturala / Kultur Teknikaria 214 Zerbitzu soziokulturaletako koordinatzailea 218 Euskara Teknikaria 220 Partehartze Teknikaria 213-7 Kultura, Hezkuntza eta beste arloetako administrari laguntzailea. 213-10 Kirol eta Jai administrari laguntzailea
Liburutegia (2 langile)	207-1 Liburuzaina 207-2 Liburuzaina
Atezainak (2 langile)	405-1 Zabaleko ikastetxeko atezaina 405-2 Mendikoko ikastetxeko atezaina
Alkatetza, Idazkaritza eta HAZ (8 langile)	201 Idazkari orokorra 2013-2 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (HAZ) 213-3 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (HAZ) 213-4 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (HAZ) 213-6 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (HAZ) 213-9 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea (HAZ) 215 Administrari laguntzailea (Idazkaritzako koordinazio funtziotan dago egun) (HAZ) 221-4 Kudeaketako administraria (Alkatearen idazkaria)

Gainerako ataletan ezinezkoa da euskarazko atalik izendatzea, hortaz mikroplanak ezarriko dira hainbat ataletan, 2018-2022 plangintzaldian 49 lagun izango direlarik (46 ikastaroetan eta 3 gainontzeko ekintzetan; ikastaroetan 3HE eta 2HE duten beharginak sartzen dira) zuzenean erabilera-planean murgilduta arituko direnak (2013-2017 plangintzaldian 46 izan ziren, eta 2008-2013an 30) eta 20 atal elebidunen artean (8 gehiago azken plangintzaldian baino) eta 46 euskara sustatzeko ikastaroetan (2. Eta 3. HE dutenak), eta 20 mikroplanetan. Beraz, guztira Amurrioko euskara-planean [mikroplanetan ondoko 20 langileak sartuko dira](#):


1. 212 Ingurune naturaleko kudeaketa saila
2. 213-3 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
3. 213-4 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
4. 213-5 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
5. 213-10 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
6. 213-11 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea
7. 215 Idazkaritzako koordinatzailea
8. 218 Baso eta ingurumen naturaleko teknikari laguntzailea
9. 221-1 Kudeaketako administraria ZOHK
10. 221-5 Kudeaketako administraria ZOHK

11. 221-7 Kudeaketako administraria ZOHK
12. 301 Kontuhartzaile Orokorra
13. 303-1 Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria
14. 303-2 Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria
15. 403-2 Lan eta Zerbitzuetako gidari ofiziala
16. 404-4 Ofizioetako laguntzailea: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak
17. 404-5 Ofizioetako laguntzailea: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak
18. 405-2 Mendikoko atezaina
19. 501 Udaltzainburua
20. 502-5 Udaltzaina (Udaltzain kabu funtziotan dago egun)

## Amurrioko udal langileen hizkuntza mailaren bilakaera

AMURRIOKO UDALA-EUSKARAREN IV.BARNE PLANA

2003 | 2005 | 2008 | 2013 | 2015 | 2021



Amurrioko udal langileen hizkuntza mailaren bilakaera

- 4. Hizkuntz Eskakizuna
- 3. Hizkuntz Eskakizuna
- 2. Hizkuntz Eskakizuna
- 1. Hizkuntz Eskakizuna
- Egiaztatatu gabe

	2003	2005	2008	2013	2015	2021	BILAKAERA
4. Hizkuntz Eskakizuna	0	1	1	1	1	3	↑2
3. Hizkuntz Eskakizuna	9	9	17	17	30	26	↓4
2. Hizkuntz Eskakizuna	9	11	15	16	18	20	↑2
1. Hizkuntz Eskakizuna	5	6	9	7	8	6	↓2
Egiaztatatu gabe	5					10	↑10



## HIZKUNTZA ERABILERARAKO JARRAIBIDEAK

Euskararen Oinarrizko Legean, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legean eta 86/97 Dekretuan hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak ematen badira ere, administrazio bakoitzean aipatu araubidean jasotako xedapenak era mailakatuan garatzea komenigarria da, administrazio horietako jardunaren erantzule direnak hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak izan ditzaten. Erabilpena Arauzkotzezko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legean eta 86/97 Dekretuan hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak ematen badira ere, administrazio bakoitzean aipatu araubidean jasotako xedapenak era mailakatuan garatzea komenigarria da, administrazio horietako jardunaren erantzule direnak hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak izan ditzaten.

[Udaleko aginte-organoetarako zein administrazio-atal guztietarako jarraibideak](#)

### Zerbitzu-hizkuntza

Euskarak, gaztelaniak bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, atal-mota guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman-mota guztietan bermatu beharko du euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoetan eta bai tresna elektronikoen, informatikoen zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, fax, posta elektronikoa eta abarretan).

### Ahozko harremanetan

1. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz e.a., emandakoak), euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, esandako orden horretan.
2. Euskara dakien langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarri, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du. Herritarren lehenengo hitza euskaraz izatea errazteko hala nahi duten langile eskaldunek bereizgarria izango dute

### Idatzizko harremanetan

Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrak beren-beregi euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu. Izan ere, herritarrak Administrazio honetara zuzentzerakoan erabilitako hizkuntza da erantzunean erabiliko dena, hori bai, eskakizuna talde (elkarte, enpresa...) baten izenean herritar batek eginez gero elebitan erantzungo da.

[Komunikazio administratiboak: administrazioen arteko harremanak](#)

Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, elebitan egon behar dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak beste edozein administrazioetara bidalitako komunikazio administratiboak.

Komunikazio administratiboak euskaraz idatziko dira hala eskatzen duten herri administrazioetara baita euskara hutsa erabili ohi dutenetara ere.

### [Lan-hizkuntza](#)

Lan-hizkuntzaren inguruko jarraibide hauek, batez ere, memoria, azterketa, txosten eta zirriborroei buruzkoak dira, eta bai hizkuntza ofiziala aukeratzeko dauden legezko xedapenek ikutu gabeko bestelako gaii buruzkoak ere.

Jarraibideak, berriz, honako hauek dira:

Plan honetan komunikazio administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin gabe, administrazio-ataleko dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz edo gaztelaniaz. Euskara lan-hizkuntza bilakatzeko ahalegina atal elebidunaren baitan dauden 20 langile eta mikroplanetan murgildutako 20 langileengan burutuko da bereziki.

#### Administrazio-atal elebidunetarako jarraibide propioak

Amurrioko Udalaren kasuan Zerbitzu Soziokulturaletako atalak, liburutegiak eta idazkaritza atalek bakarrik betetzen dituzte elebidun izendatzeko gutxieneko baldintzak. 20 langilez osaturiko atal horietako lanpostu gehienek dute derrigortasun data ezarria, eta horietako 17k egiaztatua dute. Hortaz atal honetan astero burutzen diren koordinazio bileretariko batzuk euskararen erabilerari buruzko jarraipena egiteko baliatuko dira.

Euskara lan hizkuntza bilakatzeko ahalegina egingo den arren, euskara zerbitzu hizkuntza izan dadila bermatu beharko da. Horrela, ohiko idatzizko harreman zein jakinarazpenetan, Udaleko gainerako ataletan bezalaxe euskararen erabilera bermatzeaz gain, Tokiko Gobernu Batzarrean zein Alkatetzaren Dekretu bidez hartzen diren akordioen jakinarazpenak elebitan egon daitezen jarraipen zehatza egingo da. Betekizun hori ezinbestekoa izango da norbanako, izaera ezberdineko elkarte edo ikastetxeei zuzenduriko akordioen jakinarazpen guztietan.

Bestalde, Amurrioko Udalaren 3 atal elebidunetako langileek, herritarrekiko euskarazko harremana sustatu asmoz telefonoa hartzerako garaian euskaraz egingo dute harrera. Era berean, mikroplanetan parte hartzen duten langileek ere irizpide bera beteko dute.

Plangintzaldiko bigarren urtean atal elebidunek izandako bilakaeraren ebaluazioa egingo da, baita hobetu edo egokitzeko hartu beharreko neurriak proposatu ere.

#### Hizkuntza ofizialen erabilerarako itzulpen-irizpide osagarriak

Hizkuntza ofizialen erabilerarako aurreko puntuan emandako jarraibideek itzulpen-irizpide osagarriak behar dituzte, plan honetan jaso beharko direnak. Izan ere, bi hizkuntza ofizial lan egiteko gai diren funtzionarioek planean emandako jarraibideen arabera jokatu beharko dute, atal bakoitzeko betetze-erritmoetara egokiturik. Arintasun eta eraginkortasun baldintzak bete daitezen, itzulpenak eginkizun osagarri izan behar du, hizkuntzen erabilerarako jarraibideak betetzen lagunduz.

Hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusitako itzulpen-beharrizanak honako hauek dira:

- Herritarrei nahiz beste administrazio batzuetara elebietan bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea.
- Herritarrari euskara hutsean edo gaztelania hutsean (berak halaxe aukeratu duelako) bidali beharreko dokumentazioa itzultzea.
- Aipaturiko itzulpen-beharrizanoi nola erantzungo zaien zehazteko, dagozkion neurriak emango dira; antolakuntza eta langileen alorrekoak nahiz ekonomikoak.

Edozein kasu Udalak elkarte zein ikastetxeei luzatzen dizkien jakinarazpen eta akordio oro elebitan igorriko dizkie. Era berean, web orrialdeko eduki guztiak elebitan agertuko dira. "Hauxe da" herriko aldizkariari dagokionez, plangintzaldi honetan edukien %43,52 (2016ko Amurrioko euskararen ezagutza mailari dagokion portzentaia) euskaraz argitaratuko ditu, hau da, argitaratzen diren 12 orrialdeetatik 5,22 orrialde.

## PROZEDURA ETA EDUKIAK

PROZEDURA ETA EDUKIAK	
PROZEDURA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Amurrioko Udalaren IV .Euskara Planaren oinarria diseinatu (Euskara Teknikaria)</li> <li>2. Amurrioko Udaleko arlo buruekin egungo hizkuntza egoera partekatu, eta euskararen erabilera sustatzeko ekintza posibleak jaso</li> <li>3. Partehartzerako prozesua ireki, langileek euren ekarpenak egiteko aukera izateko</li> <li>4. Proposamenaren behin-behineko zirriborroa batzorde eragilearekin osatu (Euskara Batzordea).</li> <li>5. Sindikatuei Amurrioko Udalaren IV. Euskara Planaren aurkezpena egin, eta ekarpenak jaso.</li> <li>6. Aurreko puntuan adostutakoa, zuzenean nahiz zeharka inplikaturako langileei aurkeztu eta proposamen bateratua egin.</li> <li>7. Langile eta arduradun politikoekin landutako txostenean oinarrituta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari txostena eskatu.</li> <li>8. Euskara Plana eta lehen urteko proposamena Osoko Bilkurara eraman, bertan aztertu eta onarpena lortzeko.</li> </ol>
EDUKIAK	<ol style="list-style-type: none"> <li>01. Sarrera: Euskara Planak. Lehentasunak, helburuak, eta Amurrioko Udala.</li> <li>02. Udala: Egungo Egoera, Helburuak eta Proposamenak             <ol style="list-style-type: none"> <li>a. 1.1. Alorkako egoeraren araberako helburuak eta proposamenak</li> <li>b. 1.2. Hizkuntza Irizpideak</li> </ol> </li> <li>03. Normalizazio Ekintzak eta Azpiegitura             <ol style="list-style-type: none"> <li>a. 2.1. Normalizazio Ekintzak eta Baliabideak</li> <li>b. 2.2. Azpiegitura</li> </ol> </li> <li>04. Kronograma</li> </ol>

# **UDALA: EGUNGO EGOERA II.ATALA**

## 1) UDALEKO EGOERA, HELBURUAK ETA NORMALIZAZIO EKINTZAK

Txostenaren lehenengo zati honetan Amurrioko Udalaren hizkuntza egoeraren berri ematen da (datu-bilketaren emaitzak) batetik, eta 86/97 Dekretuari jarraituz, bete beharreko helburuak zein planteatu diren proposamenak jakinarazten bestetik. Beste era batera esanda, Amurrioko Udalean euskara zenbateraino erabiltzen den gaur egun (zertarako, norekin eta nola) adierazten da, eta erabilera hori sustatzeko edo berorregan eragiteko proposamenak egiten dira era mailakatuan.

Oso kontuan hartu behar dira euskararen erabilera, oro har, gehien eragiten duten faktoreak bi direla:

- Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (euskararen erabilera bermatzeko solaskideen artetik "denek edo ia denek" euskaraz jakitea) eta sareko kideek dituzten hizkuntza erabilera ohitura.
- Norberak euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko duen erraztasuna (euskaraz hitz egiteko erraztasuna gutxienez gaztelaniaren bestekoa izatea)

Herri-administrazioei buruz ari garenean, beste bi faktore ere azpimarratu behar dira euskara planak aurrera eramateko orduan:

- Administrazio horrek orain arteko hizkuntzaren normalkuntza-prozesuak nola bideratu dituen eta zein den egungo hizkuntzen erabilera erreala.
- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide edo irizpideak finkatuta izateak/ ez izateak izan duen/izan dezakeen eragina.

Faktore horiek aintzat hartuta, administrazio askotan urte luzeetan gaztelania hutsean egin dena, hizkuntza batean zein bestean egiten hasiko da, jauzi kualitatibo garrantzitsua emanaz. Aldaketa hori aldaketa zaila da, eta behar den besteko denbora-tartea eta babesa ematea komeni da, hizkuntzen erabilerarako jarraibideak ondo argituta. Horregatik guztiagatik, euskara-planak gardenak, administrazio bakoitzari egokitutakoak eta era mailakatuan garatzekoak izatea komeni da.

ALORRAK	Udalaren funtzionamendurako estrategikoak diren alorren egoera, helburuak eta proposamenak: Alorkako azterketa diogunean edozein erakunderen hizkuntza-politikaren aldetik estrategikoak diren egoera-multzoak lantzea esan nahi da, hala nola: langileen hizkuntza gaitasuna, barne eta kanpo harremanak, hizkuntza-paisaia eta baliabide informatikoak.
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	Hizkuntza-irizpideak erakundearen hizkuntza-politikaren ardatz eta adierazpide izango dira, hau da, erakundeak hizkuntzen egoera eta erabilerari begira ezartzen dituen irizpideak dira. Hizkuntza-irizpideak euskara-planaren garapenarekin batera operatibizatzen joango dira eta era mailakatuan jarriko dira indarrean.
UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKA	Jarduera-esparru desberdinetarako hizkuntza-irizpideak. Hizkuntza-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza <ol style="list-style-type: none"><li>1) Zerbitzuen kontratazioak</li><li>2) Dirulaguntzak</li><li>3) Administrazioaren irudia eta argitalpenak</li><li>4) Ekitaldi publikoak</li></ol>

Hizkuntza-irizpideak izango dira euskara-planen sostengu eta plana errotzeko zutabeak, ondorioz, era mailakatuan onartuko dira, ezarritako hizkuntza-irizpideak bi urteren buruan operatiboak izan daitezten.

Arlokako azterketa diogunean edozein erakunderentzat estrategikoak diren egoera multzoak lantzea esan nahi da, hala nola: langileen hizkuntza-gaitasuna, barne-/kanpo-harremanak, hizkuntza-paisaia eta baliabide informatikoak. Azterketa honetan aipatutako alor bakoitzeko egoera adierazgarriak aukeratu dituzte erakunde bakoitzak, landuko diren helburuen arabera. Alorretan era honetako informazioa lantzen da:

- **1.Alorra:** Langileen hizkuntza-gaitasuna: Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak, derrigortasunen betetze-maila, hizkuntza-prestakuntza orokorra, hizkuntza-trebakuntza.
- **2.Alorra:** kanpo-harremanak. Udaletik kanpora doana jasotzen da hemen, herritarrei, beste administrazioei, hornitzaileei eta abarrei zuzendutakoak, hain zuzen ere.
- **3.Alorra:** barne-harremanak. Udalaren barruko harremanak (atal barne/atal artekoak) jasotzen dira, hala nola: barne-zirkularrak, ofizioak, txosten labur/luzeak, ahozko eta telefonozko harremanak e.a.
- **4.Alorra:** Hizkuntza-paisaia. Erakundearen irudia jasotzen da, bai kanpora bai barrura begirakoa: errotulazioa, katalogoak, iragarkiak, etiketajea, zigiluak, e.a.
- **5.Alorra:** Baliabide informatikoak eta teknologia berriak. Euskaraz lan egin ahal izateko baliabide informatikoen egoera aztertzen da.

## 1.1 ) UDAL LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA


Atal honetan Udalari dagokion derrigortasun-indizea, indize horren betetze-maila, hau da, zenbat langilek egiaztatu duten lanpostuan ezarrita duten hizkuntza-eskakizuna, langile elebidunen ehunekoa, ordezkari politikoen hizkuntza-gaitasuna eta langileen trebakuntza-maila jasotzen dira. Langileek betetzen duten lanpostuko lan-eginkizunak euskaraz eragozpenik gabe egin ahal izan ditzaten ematen zaien prestakuntza bereziari deituko diogu trebakuntza. Prestakuntza banakakoa zein taldekoa izan daiteke. 2021eko udal langileen egoera ondorengoa da hizkuntza mailarekiko. Bilakaerak aztertuta, ondorengoa ondorioztatu daiteke (Oharra: IV. Euskara Plana 2018.an egitekoa zen, baina 2021ean heldu zaio eginkizunari)

DATU OROKORRAK	2003	(2005)	2008	2013	2021	BILAKAERA
Lanpostu kopurua	55	58	66	63	72	+9
Lanpostu hutsak	7	7	8	4	7	+3
Derrigortasun Datak (DD) guztira	16	19	28	29	39	+10
Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak guztira	-	-	-	-	21	%32,31 (21/65)
4.Hizkuntza eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	1	1	1	3	+2
3. Hizkuntza Eskakizuna	9	9	17	17	26	+9
2. Hizkuntza Eskakizuna	9	11	16	16	20	+4
1.Hizkuntza Eskakizuna	5	6	9	7	6	-1
Egiaztatu gabe	5	-	-	-	10	+10

## Amurrioko udal langileen hizkuntza mailaren bilakaera

AMURRIOKO UDALA-EUSKARAREN IV.BARNE PLANA

2003 (2005) 2008 2013 (2015) 2021



Amurrioko udal langileen hizkuntza mailaren bilakaera

- 4. Hizkuntz Eskakizuna
- 3. Hizkuntz Eskakizuna
- 2. Hizkuntz Eskakizuna
- 1. Hizkuntz Eskakizuna
- Egiatzatu gabe

	2003	(2005)	2008	2013	(2015)	2021	BILAKAERA
4. Hizkuntz Eskakizuna	0	1	1	1	1	3	+2
3. Hizkuntz Eskakizuna	9	9	17	17	30	26	+4
2. Hizkuntz Eskakizuna	9	11	15	16	18	20	+2
1. Hizkuntz Eskakizuna	5	6	9	7	8	6	+2
Egiatzatu gabe	5					10	+10

Ondorengo tauletan Lanpostuen Zerrendan (LPZ) ageri diren dotazioen sailkapena egin da, atal horiek mantenduta. Alegia, LPZko 5 atalak hartu dira sailkapenean kontuan:

1) ALKATETZA ETA GOBERNUA	2003	(2005)	2008	2013	2021	BILAKAERA
Lanpostu kopurua	2	2	2	2	1	-1
Lanpostu hutsak	0	0	0	0	0	0
Derrigortasun Datak (DD) guztira	2	2	2	2	1	-1
Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak guztira	-	-	-	-	0	%0 (0/1)
4.Hizkuntza eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	0	0	0	1	1
Egiatzatu gabe 103-108	2	2	2	2	0	0
2) ZERB.OROKORRAK-KOMUNIT-HIRIGINTZA	2003	(2005)	2008	2013	2021	BILAKAERA
Lanpostu kopurua	25	28	28	27	39	+11
Lanpostu hutsak	22	4	4	4	3	-1

	<b>Derrigortasun Datak (DD) guztira</b>	11	12	19	19	25	+6
	<b>Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak guztira</b>	-	-	-	-	8	%22,22 (8/36)
	4.Hizkuntza eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	0	1	1	2	+1
	3. Hizkuntza Eskakizuna	9	9	13	13	19	+6
	2. Hizkuntza Eskakizuna	4	5	4	6	10	+4
	1.Hizkuntza Eskakizuna	3	3	5	3	3	=
	Egiaztatu gabe 0-102	2	2	0	0	2	+2
	Egiaztatu gabe 103-108	5	5	0	0	0	0
<b>3) ZERBITZU EKONOMIKOAK</b>		<b>2003</b>	<b>(2005)</b>	<b>2008</b>	<b>2013</b>	<b>2021</b>	<b>BILAKAERA</b>
	<b>Lanpostu kopurua</b>	5	5	6	7	4	-3
	<b>Lanpostu hutsak</b>	1	1	1	1	0	0
	<b>Derrigortasun Datak (DD) guztira</b>	2	2	2	2	1	1
	<b>Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak guztira</b>	-	-	-	-	1	%25 (1/4)
	3. Hizkuntza Eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	0	0	0	1	+1
	2. Hizkuntza Eskakizuna	1	2	4	5	3	-2
	1.Hizkuntza Eskakizuna	1	1	0	0	0	=
	Egiaztatu gabe 103-108	2	1	1	1	0	=
<b>4) LANAK, ZERBITZUAK, MENDIAK</b>		<b>2003</b>	<b>(2005)</b>	<b>2008</b>	<b>2013</b>	<b>2021</b>	<b>BILAKAERA</b>
	<b>Lanpostu kopurua</b>	16	16	18	15	14	-1
	<b>Lanpostu hutsak</b>	2	2	2	1	2	+1
	<b>Derrigortasun Datak (DD) guztira</b>	1	2	2	2	2	=
	<b>Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak</b>	-	-	-	-	6	%60 (6/10)
	3. Hizkuntza Eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	0	0	0	1	+1
	2. Hizkuntza Eskakizuna	3	3	3	3	4	+1
	1.Hizkuntza Eskakizuna	1	1	3	2	2	=



	Egiaztatu gabe 0-102	8	8	8	5	2	-3
	Egiaztatu gabe 103-108	2	2	2	2	5	+3
<b>5)</b>	<b>UDALTZAINGOA</b>	<b>2003</b>	<b>(2005)</b>	<b>2008</b>	<b>2013</b>	<b>2021</b>	<b>BILAKAERA</b>
	<b>Lanpostu kopurua</b>	7	7	12	12	14	+2
	<b>Lanpostu hutsak</b>	2	2	1	0	2	+2
	<b>Derrigortasun Datak (DD) guztira</b>	0	1	3	4	10	+6
	<b>Hizkuntza Eskakizuna betetzen EZ dutenak guztira</b>	-	-	-	-	4	%33,33 (4/12)
	3. Hizkuntza Eskakizuna (guztira, DD izan edo ez)	0	0	2	3	5	+2
	2. Hizkuntza Eskakizuna	1	1	4	2	3	+1
	1. Hizkuntza Eskakizuna	0	0	1	2	1	-1
	Egiaztatu gabe 0-102	0	0	2	3	3	=
	Egiaztatu gabe 103-108	4	4	3	2	-	-

#### 2.2.1.1- Hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten kudeaketa


Helburu nagusiak: Lanpostu-zerrendak eguneratzea, hizkuntza-eskakizunak egokitzea, derrigortasun-datak ezartzea, prestakuntza antolatzea eta banakako planak egitea.

- 39 lanpostuk dute derrigortasun-data esleitura. Horietatik, 32k egiaztatuta daukate eta bete gabe dauden beste 5 lanpostuk derrigortasun data ezarria dute, eta 2 lanpostuk ez dute derrigorrez ezarritako HE egiaztatzen, batek 3HE du eta besteak 2HE (aurreko plangintzaldian 3 ziren).
- Hortaz, Amurrioko Udalean, hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila %67,69 da

Ezagutza mailari dagokionez, 2008an 66 lanpostutik 42k (%63,63) zuten HE bat egiaztatua, 2013an, 63 lanpostutik 41 langilek (%65,08) eta 2021ean 65tik 55ek (%84,62; nahiz eta [dagokien hizkuntza eskakizuna %67,69 \(44/65\) bakarrik egiaztatu duten](#)). Hutsik dauden lanpostuak aintzat hartu gabe, 2003an 48 lanpostutik 23k (%47,92) egiaztatu zuten hizkuntza eskakizunen bat, 2008an 55etik 41ek (%74,55) , 2013an 59tik 41ek (%69,49) eta 2021ean 72tik 55ek (%76,39k, 55/72).

### Udaleko lanpostuak izaeraren arabera

JENDAURREKOA GIZARTE IZAERA OROKORRA BEREZIA



	LANGILE KOPURUA	%
LANGILE KOPURUA LPZ	72	-
PLAZA HUTSAK	7	%8,33 (7/72)
UDAL LANGILEAK (PLAZA HUTSAK KENDUTA)	65	-
<b>HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZEN EZ DUTEN LANGILEAK GUZTIRA</b>	<b>21</b>	<b>%32,31 (21/65)</b>
<b>DERRIGORTASUN DATA EZARRITA DUTEN LANGILEAK (39 dira, baina 5 hutsik daude)</b>	<b>39</b>	<b>%54,17 (39/72)</b>
DERRIGORTASUN DATA EZARRITA ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZEN EZ DUTEN LANGILEAK	2	%2,78 (2/72)

### Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabeak: prestakuntza-beharrizanak

2018-2022 plangintzaldian zehar, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileak 21 dira. Lanpostuen Zerrenda oinarri hartuta, udalaren antolaketaren arabera, ondorengoak dira hizkuntza eskakizuna ezarri arren frogatuta ez duten beharginak:

- [Alkatetza eta Gobernuan](#) 200 dotazioak 4HE du egun, eta beraz, Amurrioko Udaleko III. Euskara Planarekiko aurrerapausoa eman da.
- [Zerbitzu Orokorretan, Komunitarioetan eta Hirigintzan](#) 6 langilek ez dute ezarritakoa bete:
  - 201 (Idazkari orokorrak) eta 204 dotazioek (Kultur Agenda eta Jaietako koordinatzaileak) 4 HE ezarria dute, baina 3HE egiaztatua.
  - Horrez gain, ondorengo langileek dagokiena baino hizkuntza eskakizun gutxiago daukate: 209a bi maila beherago dago (Arkitektoa), eta gainontzekoak bat; 212 (Ingurumen Kudeaketa Saila), 221-3 (Kudeaketako administraria).
- [Zerbitzu Ekonomikoetan](#) 3 behargin ez dira ezarritako gutxienezko ailegatu: 301 Kontuhartzaile orokorra (4HE du eta 2HE dauka egiaztatuta gaur-gaurkoz), 303-1 (Zerbitzu Ekonomikoetako teknikaria), 303-2 (Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria). Azken biek 3.HE dute ezarria, eta 2HE egiaztatuta.
- [Obra eta Zerbitzuak eta Mendiak](#) atalean 2.HE beharko lukete 401 (Obra arduradunak) eta 402

(Zerbitzuetako enkargatuak) dotazioek, eta lehenbizikoak soilik du 1HE. Bestalde, beste 3 langilek (404-1, 404-2, eta 404-3) ez dute 1HE egiaztatuta. Horrenbestez, orotara, 6 postu daude hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe. Alta, lanpostu batek ere ez dauka derrigortasun datarik. Aurrera begira, estrategikoa izan daiteke postu horietan derrigortasun datak ezartzea, titularrak erretiroa hartu aurretik, batik bat arduradunen kasuetan.

- Azkenik, [Udaltzaingoa](#), 4 dotazio dira hizkuntza eskakizunetik behera daudenak: 502-7, 502-8, 502-9 eta 502-10 udaltzainak. Alabaina, azpimarratzekoa da beste 4 dotazio eskakizunetik gora daudela (3HE dute egiaztatuta, eskakizuna 2HE den bitartean).

Alta, langile hauek guztiak 45 urtez gorakoak dira baina bat ere ez dago adinagatik salbuetsita, derrigortasun data ezarri zitzaizen plangintzaldi hasieran 45 urteak bete gabe zituztelako.

## Salbuespenak

ADMINISTRAZIO ATALA	Lanpostuak 2013	Lanpostuak 2021	Derrigortasuna 2013	Derrigortasuna 2021	Adinagatik salbuetsiak
Alkatetza eta gobernua	2	1	2	1	0
Zerbitzu orokorrak: komunit.-Hirigintza (3 hutsik)	27	39	19	25	0
Zerbitzu ekonomikoak	7	4	2	1	0
Lanak, zerbitzuak, mendia (1 hutsik)	15	14	2	2	0
Udaltzaingoa (2 hutsik)	12	14	4	10	0
Guztira	63	72	29	39	0

Beraz, lehen aipatu bezala, Udalean hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila % 67,69 da (21 langilek ez dute dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta egun beteta dauden 65 lanpostuetatik).

Bestalde, Amurrioko Udalak 2016ko errolda datuek agertutako [%43,52ko derrigortasun indizea aplikatzeko beharrezko derrigortasun data kopurua gainditzen du; gutxienez 32 lanpostuk beharko lukete izan derrigortasun data ezarria, eta 39 ezarri dira](#) (gehiago jartzearen arrazoia da 2021eko errolda datuak eguneratzeak ekarriko duen igoera portzentaia aurreikustea. Alegia, Amurrioren urtero 100 haur jaiotzen dira, hots, biztanleriaren %1, eta denak D eremuan matrikulatzen dira eta euskaltegiak ere helduak euskalduntzen ditu. Horrenbestez, zentzuzkoa dirudi urtero %1eko igoera aurreikustea). Horrek, bost urte barru %48ko indizean kokatuko luke Amurriko udalerrria, hargatik aurreikusi da gutxienez 35 beharginek derrigortasun data betetzea. Aintzat hartuta 2k ezarrita izan arren ez dutela hizkuntza eskakizuna betetzen, 37 derrigortasun data ipinita gutxienezko beteko litzateke. Horrenbestez, aurreikuspen portzentajeak eta LPZko lanpostu kopuruak handi daitezkeenez, guztira 29 DD ezartzea proposatzen da.


Neurri honekin egun hutsik ez dauden lanpostuen artean, derrigortasun data ezarrita eta berau egiaztatzen duten 35 langileko kopurura iristea lortu nahi da, eta ahal dela gehiago, errolda datu berriak indarrean sartzean bete daitezkeen (derrigortasun data izan eta berau egiaztatzen duten 32 langile daude gaur egun, 2k derrigortasun data ezarrita dute eta ez dute betetzen). Horrez gain, hutsik dauden beste 5 dotazio betetzerakoan HE egiaztatu beharko da.

## 1.2) UDALBATZAKO ORDEZKARIEN HIZKUNTZA GAITASUNA

UDALBATZAREN BILAKAERA, EUSKARAREN EZAGUTZA MAILARI DAGOKIONEZ						
2007-2011 LEGEAGINTALDIA	4HE	3HE	2HE	1HE	106-103	103>
EZAGUTZA EHUNEKOTAN	%15,38	%7,69	%7,69	%38,46	0	%30,77
2011-2015 LEGEAGINTALDIA	4HE	3HE	2HE	1HE	106-103	103>
EZAGUTZA EHUNEKOTAN	%5,88	%23,53	%23,53	%11,76	%11,76	%23,53
2015-2019 LEGEAGINTALDIA	4HE	3HE	2HE	1HE	106-103	103>
EZAGUTZA EHUNEKOTAN	%5,88	%17,64	%17,64	%11,76	%17,64	%29,41
2019-2023 LEGEAGINTALDIA	4HE	3HE	2HE	1HE	106-103	103>
EZAGUTZA EHUNEKOTAN	%0	%47,05	%17,65	%11,76	%5,89	%17,65

Ondorengo grafikoan Amurrioko udalbatzaren azken 20 urteetako bilakaera ikusi daiteke:

### AMURRIOKO UDALBATZAREN EUSKARA EZAGUTZA Zinegotzien hizkuntza ezagutzaren bilakaera




## AMURRIOKO EUSKARA EZAGUTZA DATUEN BILAKAERA

Eustat



■ EUSKALDUNAK ■ IA EUSKALDUNAK ■ ERDALDUNAK



## HELBURUAK ETA PROPOSAMENA

Helburua, langile bakoitza, normaltasun osoz, bere eguneroko zereginak euskaraz egiteko kapaz izatea da. Horretarako, prestakuntza eta trebakuntza bezalako normalizazio-ekintzak bideratzeko beharrezkoak diren aurreikusen dira.

### DERRIGORTASUN DATA EZARRIA DUTEN LANGILEAK (ORDU KREDITUAK AGORTU GABE)

Derrigortasun data ezarria duten langileen prestakuntzarako proposamena hau da: **Hizkuntza-eskakizuna eskuratze bidean, ikastaro trinkoetan parte hartzea:**

- Ordu kredituen kalkulua HAEEK (IVAP) zehazten du Amurrioko Udalaren Euskara Zerbitzura bidaltzen dituen txostenen bidez. Berez, Udalak HAEEekin duen hitzarmenaren arabera, ordu kreditu saldo positiboa duten udal langileen euskara ikasteagatik matrikularen zenbatekoa soilik hartzen du beregain HAEEK. Hau da, udal langileei eskolak emateak sorturiko kostua hartzen du beregain HAEEK, ez Udalak kontrataturiko enpresen langileena. Zerbitzu publikoa enpresa pribatuen bidez eskaintzen den kasu hauetan, Udalak langile horien euskalduntzetik eratorritako kostua beregain hartu ez arren, udal langileak euskalduntzeko propio eraturako taldeetan parte hartzeko lehentasuna eskainiko die.
- Hasierako ordu kredituen kopurua zehazteko, langile bakoitzak bere euskalduntze prozesua abiarazterakoan duen euskara maila aintzat hartuta, honek betetzen duen lanpostuari dagokion HE

eskuratze beharrezkotzat jotzen den ordu kopurua hartzen da kontuan. Egun, dagokien HE egiaztatu gabe duten gehienek HAEEn ordu kreditu guztiak agortuta dituzte.

## DERRIGORTASUN DATA EZARRITA DUTEN LANGILEAK (ETA ORDU KREDITUAK AGORTUTA)

- Ordu kreditua agortua duten langileek HE egiaztatze ikastaroetan parte hartu nahi izanez gero, Amurrioko Udalak euskalduntze prozesu horren kostua %100 hartuko du beregain, hori bai, lanorduz kanpo jasoko dituzte eskolak.
- Era berean, dagokien HE egiaztatu ez dutenen kasuan lanorduz kanpo euskara ikasten emandako denboraren erdia eskainiko die Udalak lehendabiziko bi urteetan baldin eta euskaltegiak asistentzia %90ekoa izateaz gain jasotako 144 eskola orduko maila bat gainditu duela ziurtatzen badu.
- Dagokien HE egiaztatu ez duten eta barnetegietan parte hartu nahi duten langileen kasuan, Udalak barnetegian emandako egunen erdiak laneguntzat joko ditu aurreko bi baldintzak betez gero. Kasu guztietan ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatze aurkezten diren deialdi guztietara aurkeztea.
- Amurrio Bidean SAU-ren kapitalaren %100 Udalarena dela aintzat hartuta, bertako langileen euskalduntze prozesuak gainerako udal langileen trataera berdina izango du, baita Musika Eskolako langileek ere. Plangintzaldi honetan Amurrioko Udalak Amurrio Bidean eta Musika Eskolako berariaz EENP bana burutuko ditu, eta hauek indarrean ez dauden bitartean honako plan honetan jasotako irizpide orokorrak ezarriko zaizkie.

## HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATUTA DUTEN LANGILEAK

Era berean, plangintzaldi honetan HE egiaztatuta duten langileek 40 orduko bi birziklatze-saio izatea aurreikusten da.

- Hortaz, 2HE eta 3HE egiaztatuta duten langileek lanorduen baitan bi hilabetez eta 08:00etatik 09:30era (jendaurreko ordutegitik kanpo) ezagutza maila horiei dagokien birziklatze ikastaroa jasoko dute.
- Txandaka lan egiten duten udaltzainen kasuan, Udalak saio presentzialetan parte hartzeko aukerak aztertzeaz gain, autoikaskuntza bidezko programetan (Boga) parte hartzeko aukera eskainiko die, ikastaro hauen kostuaren %100 beregain hartuz.

Amurrioko Udalaren kasuan, 2 talde egitea proposatzen da, batean 2.HE egiaztatuta duten langileek hartuko lukete parte (22 langile guztira), bestean aldiz 3.HE egiaztatuta luketenak (26 langile dira orotara 3.HE egiaztatuta dutenak). Beraz, guztira 48 lagunek parte hartuko lukete birziklatze saioetan. Aipatu ikastaroak kanpo zerbitzu eta Zerbitzu Soziokulturaletako Kudeatzailearen koordinazio bidez burutuko lirateke, eta taldeak eratzeko Pertsonal Sailaren oniritzia beharrezkoa izango da.

A MULTZOA: 3.HIZKUNTZA ESKAKIZUNA DUTENAK (26 pertsona)	
ATALA	LANPOSTU KODEA
JENDAURREKOA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 213-2 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>2. 213-6 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>3. 213-7 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>4. 213-8 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> </ol>

	<ol style="list-style-type: none"> <li>5. 219-9 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>6. 215 Idazkaritzako koordinatzailea (302 dotazioko funtzioak betetzen dabil, Kontabilitate, errenta eta diru bilketako burua da)</li> <li>7. 305-1 Atezaina</li> </ol>
GIZARTE IZAERA	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. 204 Kultur Agenda eta jaietako koordinatzailea</li> <li>9. 205 Gizarte langileen koordinatzailea</li> <li>10. 206-2 Gizarte langilea</li> <li>11. 207-1 Liburuzaina</li> <li>12. 207-2 Liburuzaina</li> <li>13. 208 Kultur animatzailea</li> <li>14. 211 Natur Ingurunearen Kudeaketa Saila</li> <li>15. 219 Berdintasun teknikaria</li> <li>16. 220 Partehartze teknikaria</li> <li>17. 221-6 Kudeaketako administraria</li> <li>18. 502-1 Udaltzaina</li> <li>19. 502-2 Udaltzaina</li> <li>20. 502-3 Udaltzaina</li> <li>21. 502-4 Udaltzaina</li> <li>22. 502-6 Udaltzaina</li> </ol>
OROKORRA	<ol style="list-style-type: none"> <li>23. 201 Idazkari orokorra</li> <li>24. 202 Zerbitzu orokor eta hirigintzako burua</li> <li>25. 210 Arkitekto teknikoa</li> <li>26. 221-6 Kudeaketako Administraria (ZOHK)</li> </ol>
TREBAKUNTZA ESPEZIKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Txostenak (luze zein laburrak), baimenak, eskaerak, jakinarazpenak, Gobernurako edozein proposamen...</li> <li>● Adierazpenak, erregistroa, hiztegi aniztasuna (administrazioko terminologia), zuzentasuna, auto kontsultarako tresnak eta abar.</li> </ul>	
<b>B MULTZOA: 2.HIZKUNTZ ESKAKIZUNA DUTENAK (20 langile)</b>	
ATALA	LANPOSTU KODEA
JENDAURREKOA	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 213-4 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>2. 213-5 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>3. 213-10 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>4. 213-11 Zeregin anitzetako administrari laguntzailea</li> <li>5. 221-1 Kudeaketako administraria ZOHK</li> <li>6. 221-5 Kudeaketako administraria ZOHK</li> <li>7. 221-7 Kudeaketako administraria ZOHK</li> </ol>

GIZARTE IZAERA	8. 212 Ingurumen Kudeaketa Saila 9. 501 Udaltzainburua 10. 502-5 Udaltzaina (udaltzainburu funtziotan dago gaur egun) 11. 503-1 Udaltzain kabua
OROKORRA	12. 216 Idazkaritzako koordinatzailea 13. 217 Baso eta inguru naturaleko teknikari laguntzailea 14. 301 Kontuhartzaile orokorra 15. 303-1 Zerbitzu Ekonomikoetako Teknikaria 16. 303-2 Zerbitzu Ekonomikoetako teknikaria
ATAL BEREZIA	17. 403-2 Lan eta Zerbitzuetako gidari ofiziala 18. 404-4 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak 19. 404-5 Ofizioetako laguntzaileak: lanak eta mantenua eta parke eta lorategiak 20. 405-2 Ikastetxeko atezaina
TREBAKUNTZA ESPEZIKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ortografia eta orokorrean ahozko hizkeratik idatzizko hizkerarako jautzia.</li> <li>• Ofizioak, txosten laburrak, iragarkiak, eskutitzak, Gobernuko ohiko proposamenak...</li> </ul>	

Era berean, eta hurrengo urteei begira, HE egiaztatua duten eta euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartzen duten langileei zuzenduriko trebakuntza saioak egitea aurreikusten da. Ikastaro hauek birziklatze ikastaroak burutu eta jarraian erabilera planetan murgildutako 4 langileri zuzentzea proposatzen da, astero bakoitzak 2 orduko ikastaroa jasoko luke hiru hilabetez (guztira 24 ordu pertsonako).

Azkenik, Amurrioko Udala urtero, gutxienez, langile bat liberatzen saiatuko da, lan jardun osoz eta eskola egutegiari egokituta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzekeo prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 20 eta 21 artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.



## 2) ARLOKAKO EGOERAREN ARABERAKO HELBURUAK ETA PROPOSAMENA

### 2.1) KANPO HARREMANAK

Udalak udalaz kanpokoekin dituen harremanak dira kanpo-harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Udalaren kanpo-harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu-enpresak eta hornitzaileak. Kanpora begirako harremanen azterketa egin denean, hurrengo taulako egoera aurkitu dugu (2003ko datuak/2008ko datuak/2013ko datuak/2021).

Datuak ateratzeko bi azterketa mota egin dira. Batetik, Siadecok diseinatutako galdetegian langileek zehaztutako idazki kopurua erantsi da (taulan ageri dena). Alabaina, ikerketan ez dute udal langile guztiek parte hartu, hots, aitortza datuak dira. Hori dela eta, datu objektiboak izate aldera, 2021eko TGBn landutako proposamenak eta dekretuak ere aztertu dira.

EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA				
URTEA	LAGINA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I.Euskara Plana	218	18 (%8,25)	3 (%1,38)	197 (%90,37)
2008: II.Euskara Plana	509	65 (%12,77)	0	444 (%87,23)
2013: III.Euskara Plana	661	164 (%24,81)	0	497 (%75,19)
2021: IV.Euskara plana	410	114 (%27,81)	0	296 (%72,19)
EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA ERABILERA				
URTEA	LAGINA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I.Euskara Plana	169	0	44 (%26,04)	125 (%73,96)
2008: II.Euskara Plana	2882	42 (%1,45)	493 (%17,11)	2347 (%81,44)
2013: III.Euskara Plana	2842	84 (%2,96)	467 (%16,43)	2291 (%80,61)
2021: IV.Euskara plana*	2100	152 (%7,24)	244 (%11,62)	1704 (%81,14)

Aipatu gisa, galdetegien bidez langile batzuen partetik jasotako datuak dira, ordea. **Hori dela eta, Euskara Zerbitzuak 2021eko lehen lau hilekoaren azterketa egin du, portzentaiak ateratzeko aipatutako akordioen hizkuntza erabilerari buruz (dekretuak eta TGB proposamenak):**

2021eko urtarriletik apirilera bitarteko Tokiko Gobernu Batzarren deialdi guztiak aztertu dira. Alkatetza izan ezik gainerako administrazio atal ezberdinetan jasotako TGBeko 426 proposamen behatu dira:

- Euskara hutsez 0 (%0), elebitan 114 (%26,76), eta horiek guztiak zerbitzu soziokulturaletan baino ez dira gauzatu) eta gaztelera hutsez 312 (%73,24).
- Euskaraz dauden proposamen eta Dekretuak elkarte, ikastetxe eta Administrazio Batzarrei zuzendurikoak dira, baita Euskara Arloko proposamen guztiak ere. Alabaina, Gizarte Zerbitzuetako eta zerbitzu ekonomikoetako zenbait proposamen ere elebitan aurkeztu dira, aurreko plangintzaldian ez bezala.

## DATU OROKORRAK (2021eko urtarriletik apirilera)

Epealdi berean sortutako dekretuak 104 izan dira, eta horietatik 10 baino ez dira elebitan ekoitzi (%9,62). Horrenbestez, dekretuen %90,38 gazteleraz direla ondoriozta liteke.

TGB	GUZTIRA	%
Gazteleraz	312	73,24
Elebitan	114	26,76
GUZTIRA	426	
DEKRETUAK	GUZTIRA	%
Gazteleraz	94	90,38
Elebitan	10	9,62
GUZTIRA	104	
TGB+DEKRETUAK	GUZTIRA	%
Gazteleraz	406	76,60
Elebitan	124	23,40
GUZTIRA	530	

Epealdi berean sortutako dekretuak 104 izan dira, eta horietatik 10 baino ez dira elebitan ekoitzi (%9,62). Horrenbestez, dekretuen %90,38 gazteleraz direla ondoriozta liteke. Azaroaren 24ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoak 8.artikuluaren ezarritakoaren arabera, udalaren akordio zein adierazpide guztiek elebitan joan beharko lukete. Agerikoa denez, Amurrioko Udalak ez du legeak ezarritakoa betetzen, tokiko erakundearen jakinarazpenen %80 baino gehiago gazteleraz egiten direlako langileen aitortza datuetan (eta Euskara Zerbitzuen azterketetan. Funtsean, ia portzentaia berdina da Euskara Zerbitzuak egindako azterketan (%76,60).

### Taulan agertzen den informazioa era honetan aztertu dugu:

Unibertsoa: Atal honetan kanpo-harremanetako egoera desberdinetan epe jakin batean (4 hilabete) jasotako dokumentuak agertzen dira.

- Bestetik, Siadecoren bidez egindako azterketaren ondorioetan ageri denez, idatzizko harremanetan 2100 idazkitatik 1.704 gazteleraz entregatu dira (%81,14), 152 euskaraz (%7,24) eta 244 elebitan (%11,62).
- Euskaraz, Elebitan, Gazteleraz: Nahiz eta indizeak euskarazko+elebietako kasuak kontuan hartu, hemen hizkuntza bakoitzean jasotakoaren oinarrizko egoera agertzen da.

### Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera aztertzeke, ondoko egoerak neurtu dira:

- A. Telefonoa jasotzean erabiltzen den lehen hitza.
- B. Udalera hurreratzen diren herritarrei harrera zein hizkuntzatan egin zaien.

Idatzizko komunikazioetan erabilera zertan den jakiteko, ofizioak, txostenak, dekretuak, erabaki eta proposamenak aztertu dira.

## ADMINISTRAZIO ATALAREN AZTERKETA ARLOKA

### ALKATETZA ETA GOBERNUA

Atal honetan alkatearen idazkaria hartu da aintzat. Hizkuntza eskakizunik egiaztatuta ez duen dotazioa da, eta, beraz, bere idatzizko eta ahozko jatorrizko ekoizpen guztiak gazteleraazkoak dira. Edozelan ere, proiektio publikoko idazkiak elebitan bermatzen dira.

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	33	0	0	0	33
2008: II. Euskara Plana	29	0	0	0	29
2013: III. Euskara Plana	31	0	0	0	31
2021: IV. Euskara plana	27	0	0	0	27
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	46	% 24	0	11	35
2008: II. Euskara Plana	617	% 4,70	0	29	588
2013: III. Euskara Plana	536	% 20,89	0	112	424
2021: IV. Euskara plana	104	%9,61	0	10	94

\*Oharra: Alkatezako dekretuak soilik aztertu dira atal honetan, 2021eko urtarriletik apirila bitartekoak hain zuzen.

### ZERBITZU OROKORRAK, KOMUNIT.-HIRIGINTZA

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	123	%15	15	3	105
2008: II. Euskara Plana	218	%19,26	42	0	176
2013: III. Euskara Plana	373	%36,19	135	0	238
2021: IV. Euskara plana	145	%35,17	51	0	94
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	48	%25	0	12	36

2008: II. Euskara Plana	1399	%27,38	42	341	1.016
2013: III. Euskara Plana	1119	%28,60	56	264	799
2021: IV. Euskara plana	904	%26,55	0	240	664

## ZERBITZU EKONOMIKOAK

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	22	%5	1	0	21
2008: II. Euskara Plana	101	%6,93	7	0	94
2013: III. Euskara Plana	117	%8,55	10	0	107
2021: IV. Euskara plana	100	%10	10	0	90
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	23	%17	0	4	19
2008: II. Euskara Plana	378	%11,11	0	42	336
2013: III. Euskara Plana	348	%7,44	2	26	348
2021: IV. Euskara plana	512	%42,19	0	216	296

Oharra: Zerbitzu ekonomikoetan azken urteetan eredu elebidunak sortu dira, eta txostenak elebitan egiten hasi dira. Azken urtean Kontabilitate eta Zergen arduradunaren postua bete da, eta hizkuntza eskakizuna betetzeaz gain, zenbait txostenen elebitasuna bermatu du (horri zor zaio igoera).

## LANAK, ZERBITZUAK ETA MENDIAK

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	28	%7	2	0	26
2008: II. Euskara Plana	84	%14,29	12	0	72
2013: III. Euskara Plana	39	%15,38	6	0	33
2021: IV. Euskara plana	53	%24,53	13	0	40
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ

2003: I. Euskara Plana	18	%28	0	5	13
2008: II. Euskara Plana	416	%15,86	0	66	350
2013: III. Euskara Plana	669	%7,17	12	36	621
2021: IV. Euskara plana	272	%0	0	0	272

Idatzizko erabileran, aurrez esan bezala, 2021eko lehen lau hilekoan Tokiko Gobernu Batzarrean sartutako idazkiak hartu dira kontuan. Arlo honetako txostenetan gaztelera izan da hizkuntza nagusi. Alabaina, aitortu beharra dago zenbait dokumentu elebitan ekoizten direla arlo edo zerbitzu batzuetan.

## UDALTZAINGOA

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	12	0	0	0	12
2008: II. Euskara Plana	77	%5,19	4	0	73
2013: III. Euskara Plana	101	%12,87	13	0	88
2021: IV. Euskara plana	30	%0	0	0	30
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	34	%35	0	12	22
2008: II. Euskara Plana	72	%20,83	0	15	57
2013: III. Euskara Plana	143	%30,07	14	29	99
2021: IV. Euskara plana	16	%0	%0	%0	16

Aurreko atalean moduan, azterketa egin den denbora tartean ez da euskarazko dokumenturik tramitatu. Alabaina, Udaltzaingoaren zenbait idazki elebitan daude (Isun orriak eta beste). Horrenbestez, laginketan euskararen presentzia %0 izateak ez du esan nahi arlo horretan euskararen erabilera hutsa denik.

HELBURUAK

Kanpora begira, helburu nagusia, harreman-hizkuntza, idatziz euskara zerbitzu hizkuntza izan dadila bermatzea da eta aukerarik dagoen esparruetan ahozkoan ere euskararen erabilera sustatzea, beti ere kontuan izanda herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea duela. Bi urtera begira, euskarazko idatzizko harremanak areagotu eta ahozko harremanak normaltasunaren baitan burutzea litzateke. Idatzizko harremanei dagokienez, atal guztietan euskararen erabilera gutxienez %33 ingurura heltzea erdietsi nahi da. Ildo horretan hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko motibazio tailerrak antolatuko dira.

<p>AHOZKO HARREMANAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amurrioko Udalean euskararen ahozko erabilerak %3 egin du gora III. Euskara Planarekin alderatuta.</li> <li>• Alkatetzan gaztelera da hizkuntza nagusi. Tokiko erakundearen antolaketa oinarri hartuta, alkatetza da eremu erdaldunena. Idazkaritzan eta HAZen euskaraz komunikatzeko gaitasuna dute, nahiz eta erabilera herritarraren edo udal langilearen arabera egokitu.</li> <li>• Zerbitzu orokorretan, komunitarioetan eta hirigintzan ahozko erabilera datuak mantendu dira, nolabait. Arlo honetan xedea langileen artean euskara harreman zirkuitutan eransteke motibazio saioak antolatzea izango da, beharginen hizkuntza ohituretan eragiteko.</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoetan ahozko joera mantendu egin da.</li> <li>• Lanak, Zerbitzuak eta Mendiak atalean, aldiz, ahozko erabilerak %9,15 egin du gora, zenbait langileren arteko harremanak euskaraz izatera igaro baitira.</li> <li>• Udaltzaingoa, azkenik, gaztelera jarraitzen du izaten elkarren arteko komunikazioan hizkuntza nagusi.</li> </ul>
<p>IDATZIZKO HARREMANAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amurrioko Udalean, langileek galdetegietan aitortutako datuen arabera, euskararen idatzizko erabilerak %0,58 egin du behera III. Euskara Planarekin alderatuta. Idatzizko erabileran, baina, gaztelera da hizkuntza nagusi. TGBko proposamenak aztertuta, %73,24 izan dira gaztelera, eta %26,76 elebitan. Helburua eta proposamena hurrengo plangintzaldirako elebitasuna %33an heltzea izango da.</li> <li>• Alkatetzan eta gobernuan dekretuak aztertu dira, eta %9,61 soilik joan dira elebitan. Zentzu horretan, lan handia dago eremu eta arlo honetan. Xedea, idatzizko euskarrietan erabilera bikoiztea izango da plangintzaldi honetan, dokumentuen %20 elebitan egoteko behintzat.</li> <li>• Zerbitzu orokorretan, komunitarioetan eta hirigintzan ez da aurrerapauso handirik antzeman, are, %2,05 egin du atzera euskarak. Hargatik, arloka proposamen eta dokumentuen ereduak elebitan sortzea izango da datozen urteetarako erronka. Edozelan ere, %26,55 da idatzizko erabilera atal honetan gaur-gaurkoz.</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoetan %34,75 hazi da euskararen erabilera. Igoera azken urteetan sortutako idatzizko euskarrien ereduetan elebitasuna areagotzeari zor zaio. Helburua, aurrera begira, herritarrei zuzendutako idazkietan elebitasuna dokumentuen %40an bermatzea izango da, horretarako ereduak sortuta.</li> <li>• Lanak, Mendiak eta Zerbitzuak arloan euskararen idatzizko erabilerak gabezia nabarmena du, Udaltzaingoa bezala. Hori dela eta, idatzizko euskarrietan</li> </ul>

	eredu elebidunak sortzea izango da lehentasuna plangintzaldi honetan.
--	---

Bestalde, kontuan izan behar da akordio proposamenak astero aztertu eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ostean 10 eguneko epea dagoela jakinarazteko eta Amurrioko Udalak itzultzailerik ez duenez, zeregin horretan laguntza eskaintzea zailtasunak daudela. Ofizio, Batzordeetako gai orden, iragarki tauletako idazki, inprimaki edo web orrialdean jartzen den informazioa aztertuz gero, elebitan idatzitako kanpo harremanak asko handitzen dira.

Hori guztia aintzat hartuta, plangintzaldi honetan euskararen idatzizko erabilera jakinarazpenetan areagotzeko ahalegina egingo da, plangintzaldi bukaeran akordio jakinarazpenen %20 elebitan igortzeko erronka ezarriz. Hortaz, batez ere hurrengo puntuetan eragitea aurreikusten da:

- Herritarrari zuzendutako dokumentu labur eta akordioen jakinarazpenetan (Diruzaintza arloko proposamenen jakinarazpenen erdia elebitan igor daitezkeela aurreikusten da).
- Horrez gain, erakunde publikoei zuzentzen zaizkien idatzietan.

## PROPOSAMENAK

### ITZULTZAILEAREN FIGURA

Amurrioko Udalak duen tamaina eta idazki ezberdinen ekoizpen bolumena aintzat hartuta, agerikoa da itzulpen zerbitzua indartzearen premia. Egun Euskalgintza Bulegoa Itzulpenak S.L. enpresari esleitu dio zeregin hori. Aipatu enpresak hilerio Tahoma 13 letran 45 orrialde itzultzen ditu (Times New Roman 12 tamainako 30 orrialde). Honek, egunero bataz beste orrialde bat itzultzen dela esan nahi du. Aipatzekoa da tarifa EIZIEk aholkatzen duena baino merkeagoa dela. Udal langile ezberdinen (administrari laguntzaile, teknikari eta Euskara Zerbitzuko teknikari zein Zerbitzu Soziokulturaletako kudeatzailea) ahaleginei esker, Udalak egunero orrialde bat baino gehiago ekoizten du euskaraz, baina ez ditu legeak ezarritako gutxienekoak betetzen. **Edozein kasu, Udalak itzultzaile bat kontratatzearen aukera aztertu beharko luke, ekonomikoki errentagarri gertatzeaz gain Eusko Jaurlaritzak Amurrio bezalako Udalari batetako Euskara Zerbitzuaren dimentsionamendurako irizpideak hala agertzen duelako. Jardunaldi erdiz balitz ere, itzultzaile bat kontratatzeari askoz etekin handiagoa aterako lioke.**

### DERRIGORTASUN DATA BETETZEN DEN LANPOSTUETAN ERABILERA RATIOAK EZARTZEA

Derrigortasun data ezarrita duten lanpostuetan, pixkanaka bada ere, euskararen idatzizko erabilera ratioak ezartzea gomendatzen da. Herritarrei zuzenduriko idazki eta jakinarazpenei eman beharko zaie lehentasuna ratio horiek ezartzerakoan, errepikakorrak diren testu errazagoetatik abiatu eta zailagoetara joz. Hartara, arlo bakoitzean euskaraz ekoizteko testu ereduak sortuko dira, euskaraz ekoizteak egin beharreko lana bikoitz ez dezan.

### EUSKARA HUTSEZ JASO NAHI DUTENEN ERROLDA

**Amurrioko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plan honetan Udalarekin harremana euskara hutsez izan nahi dutenen errola eratzeko aukerak aztertu eta martxan jarriko da, aukera hau jendarteratzeaz batera.**

### INTERPRETE ZERBITZUA

Era berean Amurrioko Udalak, plangintzaldi honetan Batzorde ezberdin zein herrian eskain litezkeen hitzaldietan euskararen erabilera berma dadin bat-bateko itzulpen zerbitzua eskaintzeko tresneria eskuragarri jarriko du. Euskara Zerbitzuak interprete lanak egiteko bitartekoak eskuratzeko bitartekoak jarri arren, garrantzia handiko ekitaldi ofizialetan interprete profesionalak kontratatuko ditu Amurrioko Udalak.

OHARRA: V. Atalean arlokako ekintza plan espezifikoak jasoa dago, zeinetan arlo bakoitzean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak zehazten diren.

## 2.2) BARNE HARREMANAK

### Egoera

Barne-harremanak langileek eurak kokatuta dauden administrazio-atalaren baitan zein beste atal batzuekin dituzten harremanak dira. Barne-harremanetan sartzen dira atal barneko dokumentuak eta atalen artekoak, arduradun politikoekin egiten diren batzarrak eta, orokorrean, udalaren ohiko funtzionamendurako harremanak.

Kanpo-harremanetan egin den bezala, barne-harremanetan ere ahozkoak eta idatzizkoak desberdindu dira.

Ondoko koadroan ikus daiteke atal bakoitzean jaso den unibertsoaren zenbatekoa eta bai ahozko bai idatzizko harremanen erabilera-indizea ere. Horretarako Siadecok diseinatutako galdetegia baliatu da. Dena den, azpimarratzekoa da 2021eko galdetegia 20 udal langilek bete dutela -herenak baino gutxiagok, hain zuzen-, eta, horrenbestez, datuak aitortzetan oinarritutakoak dira. Hots, errealak izanagatik ez dute errealitate zabala ordezkatzen.

Ondorengoak izan dira behaketarako adierazleak:

- Ahozko hizkuntzan lankideekin erabiltzen den hizkuntza, lan bilerena eta ordezkari politikoekin erabiltzen direnak aztertu dira.
- Idatzizkoan, berriz, erakunde barnerako idatzizko komunikazio ofizialen hizkuntza hartu da kontuan.

AHOZKO ERABILERA				
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	124	%4	5	119
2008: II. Euskara Plana	201	%10,45	21	180
2013: III. Euskara Plana	313	%14,38	45	268
2021: IV. Euskara plana	88	%20,45	18	70
IDATZIZKO ERABILERA				
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ EDO ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	213	%6,5	0	200
2008: II. Euskara Plana	296	%5,21	4	278
2013: III. Euskara Plana	294	%14,97	13	250
2021: IV. Euskara plana	1470	%13,61	200	1270



## ADMINISTRAZIO ATALAREN AZTERKETA, ARLOKA

### ALKATETZA ETA GOBERNUA

Atal honetan alkatearen idazkaria hartu da aintzat. Hizkuntza eskakizunik egiaztatuta ez duen dotazioa da, eta, beraz, bere idatzizko eta ahozko jatorrizko ekoizpen guztiak gaztelerazkoak dira. Edozelan ere, azken urtean itzultzaile neuronalaren bidez komunikazioak elebitan bidaltzeari ekin dio. Hala, mezuen %60 elebitan bidaltzen du, eta %40 gazteleraz.

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	13	%0	0	0	13
2008: II. Euskara Plana	18	%0	0	0	18
2013: III. Euskara Plana	21	%0	0	0	21
2021: IV. Euskara plana	30	%0	0	0	30
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	36	%6	0	2	34
2008: II. Euskara Plana	27	%0	0	0	27
2013: III. Euskara Plana	34	%0	0	0	34
2021: IV. Euskara plana	100	%60	0	60	40

### ZERBITZU OROKORRAK.-KOMUNIT.-HIRIGINTZA

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	27	%7	2	0	25
2008: II. Euskara Plana	62	%14,52	9	0	53
2013: III. Euskara Plana	107	%30,84	33	0	74
2021: IV. Euskara plana	146	%44,28	62	0	84
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	28	%4	0	1	27

2008: II. Euskara Plana	41	%2,44	0	1	40
2013: III. Euskara Plana	38	%5,26	0	2	36
2021: IV. Euskara plana	90	%22,22	3	17	70

## ZERBITZU EKONOMIKOAK

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana:	47	%4	2	0	45
2008: II. Euskara Plana	42	%4,76	2	0	40
2013: III. Euskara Plana	93	%1,09	1	0	92
2021: IV. Euskara plana	30	%16,6	5	0	25
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	28	%4	0	1	27
2008: II. Euskara Plana	41	%2,44	0	1	40
2013: III. Euskara Plana	38	%5,26	0	2	36
2021: IV. Euskara plana	90	%11,11	0	10	80

## LANA-ZERBITZUAK-MENDIAK

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	14	%0	0	0	14
2008: II. Euskara Plana	52	%13,46	7	0	45
2013: III. Euskara Plana	93	%1,09	1	0	92
2021: IV. Euskara plana	39	%2,94	3	0	34
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	17	%24	0	4	13

2008: II. Euskara Plana	71	%4	0	3	68
2013: III. Euskara Plana	32	%0	0	0	32
2021: IV. Euskara plana	195	%2,56	0	5	190

## UDALTZAINGOA

AHOZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	23	%4	1	0	22
2008: II. Euskara Plana	27	%11,11	3	0	24
2013: III. Euskara Plana	49	%16,33	8	0	41
2021: IV. Euskara plana	30	%3,33	10	0	20
IDATZIZKO ERABILERA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	37	%3	0	1	36
2008: II. Euskara Plana	51	%4	2	0	49
2013: III. Euskara Plana	62	%29,03	8	10	44
2021: IV. Euskara plana	60	%3,33	2	0	58

Adierazleen portzentajea lortzeko euskarazko eta elebietakoak hartu izan dira kontuan.

1.-Taulan azaltzen den informazioa hauxe da:

1. Unibertsoa: Atal honetan kanpo-harremanetako jasotako dokumentuak aztertu dira. Horretarako Siadecok diseinatutako galdetegia baliatu da, arestian jaso gisa.
2. %: Indizea ehunekotan agertzen da, eta euskarazkoak eta elebietako barne-harremanak hartu izan dira kontuan
3. 1.3. Eusk., Elebie., Gazt.: Nahiz eta indizeak euskarazko+elebietako kasuak kontuan hartu, hemen hizkuntza bakoitzean jasotakoaren oinarrizko egoera agertzen da.

2.-Ahozko euskarazko harremanak izeneko zutabean, telefonoa jasotzean erabiltzen den hizkuntza eta lan-bileretako hizkuntza aztertu dira I, II eta III.Euskara Planean. 2021eko datuetan (IV.Euskara Plana) Siadecoko galdetegia baliatu da, zehazki (5.1, 5.2 eta 5.3 galderak -hots, lankideekin erabiltzen den hizkuntza, lan bileren hizkuntza eta ordezkari politikoekin erabiltzen den hizkuntza).

3.-Idatzizko euskarazko dokumentuen zutabean, IV. Euskara Plana arte barne-zirkularretako hizkuntza, nomina-orrietakoa, bilera-deiak, inprimakiak, txosten laburrak, txosten luzeak, memoriak, proiektuak, dokumentu kontableak, aurrekontuak eta kontratu-mota ezberdinak jaso dira. 2021eko datuetan, berriz, Siadecoko galdetegiaren 7.8 puntua aztertu da -alegia, lan bileretako dokumentu ofizialen hizkuntza (deialdiak eta aktak).

### HELBURUAK

Atalen arteko harremanetan, zirkuitu euskalduna bermatzen duten kasuen baitan helburua lan egiteko erabiltzen den hizkuntza euskara ahozkoan normaltasun osoz erabiltzeko baldintzak erraztea da. Zerb.Orok.-Komunit.-Hirigintza atalean bereziki, beteta dauden lanpostu guztiek baitute hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta. Zerbitzu Ekonomiko eta Udaltzaingoan portzentaiak baxuagoak badira ere langile euskaldunen arteko zirkuituak sustatzeko asmoa dago. Idatzizko barne harremanei dagokionez, euskararen presentzia minimoa bermatzeko ahalegina egingo da aipatu ataletan (txosten laburretan batik bat; kontsignazio eskaera, takila orri, transferentzia eskaera, proposamenen gai zerrenda eta abarretako ereduak erabiliz). Hori abiapuntutzat hartuta, euskararen barne-erabilera era mailakatuan sustatzea aurreikusten da, izan ere, langileen gehiengoak bere barne lan guztia gazteleraz bakarrik ekoizten baitu.

Bi urtera begira ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera sendotzea izango da helburua. Idatzizko harremanei dagokionez, euskararen erabilera, atal guztietan, gutxienez %20-25 ingurukoa izatea da helburua (hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko idazki sinpleenei lehentasuna emanaz). Horretarako ekintza planean zehaztutako jarduerak (dokumentuen itzulpenak eta beste) bermatuko dira.

### Ahozko barne harremanak

Udal langileen artean ahozko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko ondorengo ekintzak proposatzen dira IV. Euskara Planaren V.Atalean:

- Udaleko hizkuntza protokoloa osatzea, eta langile guztiekin elkarbanatzea. Horrez gain, langile berriak hastean, udalaren funtzionamendua eta baliabideak ezagutarazteko dokumentuak sortzea.
- Langile bakoitzari euskara ikasteko eskura dituen baliabide eta eskaintzen berri ematea
- 2 urtean behin birziklatze ikastaroak antolatzea, interesa duten langileekin.
- 4 urtean behin 4 langileri (urtero bat) euskara ikasteko liberazio aukera eskaintzea; ikasketak eta lana uztargarriak izan daitezen (jendaurreko izaeradunak lehenetsiko dira, eta gizarte izaerakoak ondoren).
- Euskararen ahozko erabilera sustatzeko motibazio saioak antolatzea.
- Udal langileen artean Mintzalagun dinamika eskaintzea, astero 30 minutuz euskara praktikatzeko aukera eskainita lankideen arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak euskaraz izatea sustatzeko.
- Udaletxeko langileen posta eta telefono zerrenda telefonoaren aldamenean jartzeko moduan edukitzeko diseinatzea, denek paperean eskura izateko. Bertan jasoko litzateke langile bakoitzaren hizkuntza gaitasuna ere, ahoa (euskaraz hitz egiteko gai da, solasteko erraztasunak ditu), belarria (euskaraz ulertzeko gai da, baina aritzeko zailtasunak ditu) edo hutsune batekin (ez du euskara ulertzen).
- Udal langileen sinaduretan "nirekin euskaraz hitz egin (edota idatzi) dezakezu" zinta gehitzea
- Informazioa eta dokumentazioa euskaraz jaso nahi duten udal langileen errolda egitea, zenbait dokumentazio hizkuntza horretan jasotzeko (kontratua, nominak...)
- Langile berrientzat harrera eta barne funtzionamendu gidak euskaraz sortzea, lan harreman hizkuntza euskara izan dadin hasieratik.
- Euskararen ezagutza areagotzeko "Euskarari bi minutu" ikastaro azkarra eskaintzen jarraitzea egunero, posta elektronikoz bidez.
- Udako barnetegi edo ikastaroei buruzko informazioa bidaltzea udal langile guztiei, interesdunek izena emateko aukera izan dezaten, udalak IV.Euskara Planean aitortzen dituen laguntzak aipatuz.
- Administrazioan erabiltzen diren programa informatikoen zerrenda osatzea, eta euskarazko zerbitzua duten tresnak hizkuntza horretan instalatzea 3HE duten langileen ordenagailuetan (2HE dutenei aukeran emango zaie).

## Idatzizko barne-harremanak

Amurrioko Udalaren kasuan, ez da apenas euskara hutsezko barne dokumenturik ekoizten (Euskara Zerbitzuak eta Hezkuntza Arloak bideratzen dituen apurrak eta barne posta zerbitzuetako mezu informalen batzuk salbu). Egiten den apurra elebitan gauzatzen da (dokumentu sinpleak) eta hauen presentzia oso eskasa da. Lehenengo urtean arreta berezia jarriko zaie, batez ere txosten labur, dokumentu kontable eta memoria laburrei, zirkuitu euskaldunetan euskarazkoak sustatuz eta ez euskaldunetan eredu elebidunak luzatuz. Horrela, esaterako, Zerbitzu ekonomikoetatik arlo ezberdinetako teknikariei luzaturiko aurrekontuko diru izendapena izatea baieztatzen duen txostena elebitan igortzeak Udaleko espediente gehienetan euskararen presentzia bermatuko luke. Hortaz, aurtengo helburua, barne dokumentu errazenen %10 euskaraz edo eta elebitan burutzea da, hurrengo bi urteetarakoa kopuru hori %20 ingurura hurbiltzeko izanez. Era berean, aipatu helburuak lortzeko trebakuntza ikastaroak burutzea proposatzen da (Udalak propio antolatutakoak edo eta HAEEK antolatutakoak), bertan lanpostuari dagokion HE eskuratua edo eta eskuratzetik oso gertu dauden langileek parte hartuz (hizkuntza gaitasunari dagokion atalean jaso bezala).

## 2.3) HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza-paisaia, Udalaren irudia osatzen duten elementuek, balio sinboliko nahiz informatiboa dutenek, gorpuzten dute. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak (kale izendegia euskaratuta dago), informazio eta norabidezko errotuluak, aparkalekuetakoak, katalogo, gida, prentsa-iragarki, megafonia eta etiketak jasotzen dira; barruko hizkuntza-paisaian, berriz, barruko informazio eta norabide-errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria, kafe-makina eta fotokopiagailuetakoak, zigiluak, anagramak, jasotzen dira.

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	165	%50,9	14	70	81
2008: II. Euskara Plana	278	%58,99	22	142	114
2013: III. Euskara Plana	249	%61,19	30	124	95
2021: IV. Euskara plana	246	%73,88	33	149	64
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	146	%32,87	3	45	98
2008: II. Euskara Plana	129	%41,09	9	44	76
2013: III. Euskara Plana	197	%26,90	14	89	144
2021: IV. Euskara plana	290	%42,07	12	110	168

## ALKATETZA ETA GOBERNUA

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	37	%32	0	12	25
2008: II. Euskara Plana	100	%63	4	59	37
2013: III. Euskara Plana	61	%73,77	5	40	16
2021: IV. Euskara plana	43	%76,74	2	31	10
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	31	%32	2	8	21
2008: II. Euskara Plana	18	%38,88	1	6	11
2013: III. Euskara Plana	38	%26,32	1	9	28
2021: IV. Euskara plana	47	%44,44	0	32	15

## ZERBITZU OROKORRAK.-KOMUNIT.-HIRIGINTZA

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	58	%67	4	35	19
2008: II. Euskara Plana	84	%72,62	9	52	23
2013: III. Euskara Plana	91	%78,02	14	57	20
2021: IV. Euskara plana	84	%79,76	24	43	17
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	23	%48	1	10	12
2008: II. Euskara Plana	26	%53,85	3	11	12
2013: III. Euskara Plana	55	%27,27	4	11	40
2021: IV. Euskara plana	130	%50,76	7	59	64

## ZERBITZU EKONOMIKOAK

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	28	%18	2	3	23
2008: II. Euskara Plana	37	%8,11	2	3	5
2013: III. Euskara Plana	31	%9,68	1	2	28
2021: IV. Euskara plana	31	%80,64	1	24	6
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	24	%46	0	11	13
2008: II. Euskara Plana	36	%38,89	2	12	22
2013: III. Euskara Plana	37	%24,32	1	8	28
2021: IV. Euskara plana	38	%15,78	1	5	32

## LANAK ETA ZERBITZUAK

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	8	%100	0	8	0
2008: II. Euskara Plana	15	%53,33	0	8	7
2013: III. Euskara Plana	29	%48,28	3	11	15
2021: IV. Euskara plana	65	%55,38	6	30	29
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	41	%22	0	9	32
2008: II. Euskara Plana	16	%56,25	3	6	7
2013: III. Euskara Plana	33	%33,33	6	5	22
2021: IV. Euskara plana	26	%3,87	0	1	25

## UDALTZAINGOA

KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	34	%59	8	12	14
2008: II. Euskara Plana	42	%69,05	8	21	13
2013: III. Euskara Plana	37	%56,76	7	14	16
2021: IV. Euskara plana	33	%93,94	0	31	2
BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA					
URTEA	LAGINA	ADIERAZLEA	EUSKARAZ	ELEBITAN	GAZTELERAZ
2003: I. Euskara Plana	27	%26	0	7	20
2008: II. Euskara Plana	33	%27,27	0	9	24
2013: III. Euskara Plana	34	%23,53	2	6	26
2021: IV. Euskara plana	49	%34,69	4	13	32

\* Adierazleen portzentajea lortzeko euskarazko eta elebietakoak hartu izan dira kontuan.

Azterketa, leku fisikoen arabera egin da: Alde batetik, Udaletxe barruan eta bestetik, herrian zehar; Udalaren erantzukizunekoak diren errotulu, seinale eta antzekoak aztertu dira. Era berean, aurreko plangintzaldietan bezala, barneko hizkuntza paisaia aztertzerakoan langileen lan mahaietan ikusgai zeuden oharren hizkuntzak neurtu dira.

- Zerbitzu Ekonomikoetan izan ezik, gainerakoetan portzentaiak %50 ingurutik gorakoak dira.
- Aipatu beharra dago Amurrioko Udala berri zutenetik informazio panel eta bulegoetako errotulu guztiak elebitan jarrita daudela. Udaltzaingoaren irudi korporatiboan euskara da nagusi.
- Alkatetzaren baitan kokatu dira udalbatza aretoa, alkatetza eta Herritarren Arreta Zentroa. Gune horietan elebitasuna da nagusi kanpo hizkuntza paisaiari dagokionez, eta %3 igo da euskal hizkuntzaren presentzia. Barne mailako idazki eta euskarrietan elebitasuna handitu da, nahiz eta euskara hutsezko idazkiak oraindik 0 izan.
- Zerbitzu ekonomikoetan apenas dago errotulurik eta espedienteak gordetzen diren kutxetako etiketek (gazteleraz daude) osatzen dute bertako hizkuntza paisaia nagusiki (honek jaisten du portzentaia).
- Zerbitzu Orokorretan eta hirigintzan, ez da aldaketa esanguratsurik jazo. Alabaina, barneko hizkuntza paisaian elebitasunak nabarmen egin du gora (%27,27tik %50,76ra). Langileen egutegi, lan mahaietako ohar eta komunikazio euskarrietan nabaritu da inpaktu gehien.
- Lan, zerbitzu eta mendien arloan gaztelera da hizkuntza nagusia. Kanpo hizkuntza paisaian elebitasuna bermatzen da (%55,38), baina barne mailan gazteleraz daude dokumentu, ohar eta etiketa ia guztiak. Ondorioz, %3,87 da euskararen presentzia bertako biltegi eta bulegoetan.
- Azkenik, udaltzaingoan, kanpoko hizkuntza paisaia nabarmen hazi da azken 8 urteetan. Horren adierazle da egungo euskarrien %93,94 elebitan egotea. Alabaina, barne mailako datuak ez dira horren baikorrak, barne mailako lan euskarriak gazteleraz baitaude nagusiki (%65,61). Elebitan edo euskaraz dauden barne hizkuntza paisaia %34,69koa da, aurreko Euskara Planean baino %11,16 gehiago.

Hizkuntza-paisaiaren egoera aurrerapausoak eman arren oraindik ahalegin handia egin behar dela



nabarmena da, barneko hizkuntza paisaian bereziki. Gabeziei arreta jartzerako garaian barruko hizkuntza-paisaian indizerik baxuenak, tresnerian, kafe makina, fotokopiagailu eta antzekoetan ematen direla azpimarratzekoa da; kanpoko hizkuntza-paisaian, aldiz, administrazio batzuek igorri eta panel informatiboetan jartzen diren jakinarazpenetan ematen dira hutsunerik handienak.

## HIZKUNTZA PAISAIAN ERAGITEKO HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

### HELBURUAK ETA PROPOSAMENA

Helburua Udalaren irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea da; batez ere, begi bistakoak izanik, eragin nabarmena duten elementuei garrantzia handiagoa emanez, bai barrura bai kanpora begira: bulegoetako barne errotulu eta informazio oharrak, etiketak, espedienteen izenak, tresneriaren testua (fax, fotokopiagailu, inprimagailu, ordenagailua, kafe makina...) eta abar. Bi urteko epean, barne-irudi, tresneria eta kanpo-irudiko elementuetan euskararen presentzia, gutxienez %10 igotzeko ahalegina egingo da. Horretarako, ondorengo ekintzak aurreikusi dira udalean barrena, tokian toki, besteak beste:

- Inprimagailuak euskaraz konfiguratzea
- Udal langileen lan-mahaietan, euskarazko euskarriak (edo elebidunak, behinik behin) eskura jartzea (mahai egutegiak, kuadernoak eta beste).
- Espedienteak artxibatzeke euskarrietan euskararen presentzia areagotzeko karpeta berrien diseinua sortzea
- Hizkuntza paisaian jauzia emateko, itzaroteko guneetan euskarazko irakurgaiak jartzea herritarren eskura (HAZen, Gizarte Zerbitzuetan eta Zerbitzu soziokulturaletan batik bat)
- Udalak sortutako fakturak euskaratzea
- Jangelako kafe makinaren produktu eskaintza euskaratzea
- Sukaldeko erabilera arauak euskaraz sortzea
- Langileen informazio panela, lanorduen kontrolgunekoa, euskaraz edo elebitan antolatzea

## 2.4) BALIABIDE INFORMATIKOAK

### Egoera

Gero eta garrantzia handiagoa hartuko duen alorra dugu, udal funtzionamenduan gero eta informatika-baliabide gehiago erabiliko direlako datozen urteotan. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere, arian-arian, hizkuntza-normalkuntzari ekitea ezinbestekoa da. Amurrioko Udalaren kasuan, azpiko koadroan adierazten den egoera hobetzeko euskarazko baliabide informatikoak erabiltzeko ahaleginak egin beharko dira.

PROGRAMA INFORMATIKOA	PROGRAMAREN IZAERA	HIZKUNTZA ALDATZEKO AUKERA
Windows XP pro	Testu trataera	BAI (Eusko Jaurlaritzak doan eskaintzen du)
Office 2010	Datu basea, kalkulu orria	
Outlook	Posta	
Firmadoc	Espedienteen kudeaketa	BAI
Filemaker 6	Erregistroa (2018 aurreko espedienteen kudeaketa)	EZ
Sialwin	Finantzaketa	BAI

Sigep	Finantzaketa	BAI
AbsysNET	Liburutegiko kudeaketa	
IDC	Ordutegien kontrol programa	
Sicalwin	Kontabilitate aplikazioa	BAI. Euskaraz, gazteleraz, galizieraz eta katalanez dago.
A2INVENT	Ondare aplikazioa	
Gis eta Autocad	Planoak	EZ
Vialine	Trafiko isunak	
Gespol	Isunak, inprimakiak etab	BAI. Udaltzain guztientzako ordenagailu bakarra dago, buru eta kabuak bana dute.
Gizarte.eus	Txosten edo proposamenak	BAI. Gehienek gazteleraz dute, baina proposamenak elebitan ekoizten ditu
Programa de Ayudas	Gizarte Zerbitzuetako laguntzen kudeaketa	
Wordpress	Bloga	BAI
Inika	Udal Musika Eskola	Elebitan dago, baina gazteleraz darabilte.

Helburua, 2HE edo maila handiagoa duten udal langileen gehiengoak baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, betiere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Amurrioko Udaleko 5 atalak aztertu ostean eta euskarazko bertsiodun 40 ordenagailutik 3 baino ez daude euskaraz (windows eta office programak soilik) %7,5. Argi dago beraz, alor honetan dagoen gabeziari buelta eman behar zaiola, euskarazko bertsioa eskuragarri dagoen softwaretan batik bat (gainerakoak, Andaluziako aytos enpresarenak kasu, estatu mailako hornitzaileenak dira eta hauek euskaratzea garestiegia litzateke Amurrioko Udalarentzat).

- Hortaz, Amurrioko Udalak derrigortasun data ezarria duten lanpostuetan merkatuan dauden euskarazko aplikazio informatikoak instalatuko ditu, baita hala eskatzen den lanpostuetan ere.
- Zentzu horretan Udalak aplikazio informatiko berri eta zaharren hornitzaileei euskarazko bertsioak helaraztea eskatuko zaie (aukerarik dagoen kasuetan).

Euskarazko aplikazio informatiko hauen erabilerari dagokionez, lehenengo urtean Windows eta Office paketearen euskarazko bertsioak hedatzea da helburu, langileen %25ek berau erabiltzeko helburua ezarriz (egun beteta dauden lanpostuetako langileen %75,39 du (49/65 langile) 2HE edo maila handiagoko hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta, hortaz horien erdiek behintzat aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzea litzateke helburua, hots 25 lagunek). Edozein kasu, plangintzaldi bukaeran HE egiaztatzea derrigorrezkoa izan eta berau egiaztatzen duten lanpostu guztietan gutxienez merkatuan eskuragarri dauden euskarazko aplikazio informatikoak erabiltzea izango da helburua. Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita Udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika-sareetan sartzea, administrazio publiko eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatu ahal izateko (Euskalterm, administrazio-idazkiak, hiztegiak).

# HIZKUNTZA

# IRIZPIDEAK

## III. ATALA

# JARDUERA ESPARRU DESBERDINETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-irizpideak ere plana garatu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera-esparruok hartuko dira kontuan:

1. Hizkuntza-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza.
2. Kontratazio-administratiboak.
3. Dirulaguntzak.
4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak.
5. Ekitaldi publikoak.

Ondoren, lanean hasteko proposamen batzuk egingo dira, betiere, erakundeen hizkuntza-politika koordinatze aldera, aurrerantzean osatu edo egokitu egin daitezkeenak.

## **1. HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**

### Hizkuntza-prestakuntza

Hizkuntza-prestakuntzari lotuta administrazio honek jarraitu beharreko politikak, bere lanpostu-zerrendako hizkuntza-eskakizun zehatzak izan behar ditu kontuan, baita plan honek atal desberdinetarako jarritako helburuak ere. Irizpide argiak eta bateratuak beharko dira eta derrigortasun-data duten lanpostuetako langileek lehenetsuna izango dute lanorduetan euskarazko eskoletarako baimenak ematerakoan. Lan ordutegitik kanpoko udal langileen hizkuntza prestakuntzari dagozkion gastuak Udalak (HAEEren hitzarmenaren bidez edo eta bere kabuz) bere osotasunean hartuko ditu beregain, baita dagokien HE baino maila handiago bat eskuratzea helburu duten kasuetan ere. Barnetegietako egonaldiei dagokienez, Udalak jasotako eskola orduen erdia lanordutzat hartuko ditu. Gainerako kasuetan, lehenetsunak ezarriko dira lanpostuaren izaera zein ezaugarriak kontuan hartuz eta Pertsonal Arloaren oniritziz, eta lanorduz kanpoko emandako orduen erdiak lanordutzat joko dira.

### Langileen etengabeko prestakuntza

Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza sortuz joango da hizkuntza-gaitasun nahikoa duten langileentzat, plangintzaldi bukaerarako euskaraz eskainitako ikastaroen portzentaia gutxienez derrigortasun indizearen erdia izanez. Hirugarren plangintzaldian burutu diren ikastaroetatik bakarra ere ez da euskaraz eskaini. Zentzu horretan, Euskara Zerbitzuetatik prestakuntza ikastaroak euskal hizkuntzan sustatzeko ahalegina egingo da. Prestakuntza-ekintzen eskaintzen artetik, izaera orokorra dutenek izango dute lehenetsuna.

- Prestakuntza-eskaintza guztietan espreski aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.
- Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoek bezain erakargarriak izan beharko dute.

## **2. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK**

1. Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da, eskuarteko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18. d) atalean ezarritako neurriak dagozkion

ala ez adieraziko duena.

2. Eman beharreko prestazioak zerbitzu publikoaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18. d) atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurri hauek hartuko dira:
  - a. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan artatuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
  - b. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz zein gaztelaniaz, bietan, eman beharko ditu kontratistak.
  - c. Baldintza horiek ez bada betetzen edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko hizkuntza-gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espediente irekiko da kalte-ordainak eskatzeko, edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko. Aipu hauek kontratazio ezberdinak arautzen dituzten baldintza administratibo eta teknikoek zerrendetan jasoko dira, baita Jaurkitzearen Kontseiluak 2/2016 Legea ere, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakunde berruzkoa, zeinetan bete beharreko hizkuntza-baldintzei buruz harturiko erabaki proposamenak jasotzen diren.

Amurrioko Udalaren kontratazioen lehen azterketaren arabera, bost kontratu-mota azaltzen dira:

- K-1/ Udal-ondasunen mantentze-kontratuak (Kiroldetxea, frontoia, futbol zelaia, elektrikaria, inausketak...)
- K-2/ Aholkularitza tekniko emateko kontratuak (informatikaria, Lege aholkularia, hizkuntza aholkularitza zerbitzua, hirigintza egitasmoak...)
- K-3/ Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak (psikologo taldea, ingurumen azterketak, kale garbitzaileak, Gabonetako Haur Parkea...)
- K-4/ Udal-instalazioen esplotazioak (Udal Pilotalekua, Udal Igerilekua...)
- K-5/ Hornidurak (fotokopiagailuak, gutunak, paperak,...)

Herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoen kudeaketa esleitu diren kontratu gehienetan hizkuntza irizpideak aintzat hartu dira; haur, gazte zein ikastetxeekin harreman zuzena duten eta jendaurreko izaera duten zerbitzuetan batik bat. Horien adibide dira: Laguntza Psikologiko eta Pedagogikoa eskaintzeko zerbitzuaren esleipena, Amurrio Antzokiarena, Hizkuntza aholkularitza zerbitzua, Udako igerilekuak, Kirol instalakuntzen mantenua edo Gabonetako Haur Parkea. Kasu batzuetan euskararen ezagutza exijitu den bitartean beste batzuetan meritu gisa baloratu da. Hirigintzako lanak esleitzerakoan hizkuntza paisaia euskararen presentzia bermatu beharra jasoko da plangintzaldi honetan baldintza zerrendetan, orain arte ez baita eskatu (enpresak itzulpenak egiteko bitartekorik izan ezean Euskara Zerbitzuak eskainiko ditu).

#### Zerbitzu publikoak esleitzeko hizkuntza irizpideak

Baldintzen zerrendetan paisaia linguistikoan euskararen presentzia bermatzeko beharra jasotzeaz gain, herritarrekin harreman zuzena izango duten zerbitzuetan euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko irizpideak ezarriko dira. Zerbitzu publikoak emateko kontratazio guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko ditu Amurrioko Udalak, eta zerbitzua Udalak zuzenean emango balu, Udalak berak bete beharko lituzkeen betebeharrak berdina eskatuko dizkio enpresa esleipendunari.

Enpresa pribatuek zerbitzu publikoa ematen dutenean jendaurreko arretan, gazteria edo gizarte arloan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 17a eta 17b artikuluen arabera) Udalak dagokion HE egiaztatzeko eskatuko du, irizpide hauekin bat:

- A. Erakunde adjudikaziodunak herritarrei zerbitzua euskaraz ematen zaiela bermatu behar du; beraz, udalerrian eta goian adierazitako eremuan zerbitzua eskaintzen duen enpresaren langileek HE egokia izan beharko dute.
- B. 45 urtetik gorako langileak derrigortasun horretatik salbuetsita badaude ere, 45 urtetik gorako langileetatik % 50ek gutxienez HE egokia egiaztatuta izan behar dute.
- C. 3. HE edo 4. HE behar duten lanpostuetan, 45 urtetik gorako langileek betetzen badituzte, salbuespen gisa 2. HE onartuko da, b) puntuak ezarritako ehunekoa bete ahal izateko.
- D. Salbuespen gisa eta pleguetan halaxe jasota agertzen bada, Euskara Zerbitzuak HE egiaztatzeko azterketak (ez ofizialak, homologatu ezinezkoak) egin ditzake 45 urtetik gorako pertsonen euskararen ezagutza maila neurtzeko.

86/97 Dekretuaren 17a eta b artikuluan ezarritako esparruei ez dagozkien zerbitzu publikoen kontratazioa:

- A. Zerbitzuaren izaera aintzat hartuz eta salbuespen gisa, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu da, 2008-11-27ko Osoko Bilkuran 86/97 Dekretuaren 31 artikuluan ezarritakoak aintzat hartuz onartu ziren ehunekotan baloratuz. Hala ere, irizpide hori ezin daiteke erabili jendaurreko arreta, gazteria eta gizarte arloko zerbitzuen esleipenentarako.
- B. Jendaurreko, gazteria eta gizarte izaera duten zerbitzuen kontratazioari dagokion atalaren a) idatz-zatia betetzeko derrigortasuna jaso daiteke klausula batean, berorren luzapenerako baldintza gisa; hala ere, puntu horren b) idatz-zatian adierazitakoa bete behar da.
- C. Administrazioaren klausulen agiri guztietan Eusko Jaurlaritzak 2006ko otsailaren 28ko Osoko Bilkuran onartutako hizkuntza arloko baldintzak jaso behar dira.

Irizpide hauek guztiak behar bezala bete daitezten, kontratazioentarako pleguak onartu aurrez, Euskara Zerbitzuak luzatutako hizkuntza irizpideen gaineko txostena eskatu beharko du Amurrioko Udalaren administrazio atal orok.

### **3.DIRULAGUNTZAK**

Dirulaguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, esleipena egiteko eta, hala badagokie, zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean hizkuntzen erabilera kontuan izan behar da, laguntza edo dirulaguntzaren objektuan hizkuntzaren erabilera eraginik duenean edo Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 25, 26 eta 27. ataletan aipatzen diren jardura-eremuetakoak direnean.

### **4. ADMINISTRAZIOAREN IRUDIA ETA ARGITALPENAK**

Amurrioko Udaleko irudian eta argitalpenetan euskararen presentziari lehentasuna emango zaio. Hau da, euskara eta gaztelera agertzen diren argitalpenetan euskara ezkerreko aldean edo goiko aldean egongo da. Era berean, euskarazko hitzek gaztelera-azkoaren antzekoak edo eta erabat gizarteratutakoak diren kasuetan (bandoa, Udala, Udaltzaingoa, Kiroldegia, kultura etxea, Liburutegia, Turismo Bulegoa, alkatea ...) euskara hutsez joango dira. Hartara, irizpide orokorrak aztertu eta ezarriko dira, baita irudi edo argitalpen-mota bakoitzaren araberrakoak ere.

### **5. EKITALDI PUBLIKOAK**

Udalaren edo bere erakunde autonomoetako kargu eta enplegatu elebidunek euren euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldietan, erakundearen duten kargu edo lanpostuagatik badihardute.

Era berean, Udalak ahal den guztietan halako ekitaldiak bideratzeko izendatuko dituenak hizkuntza-gaitasun egokia dutenak izan daitezzen zainduko du.

**NORMALIZAZIO  
EKINTZAK ETA  
AZPIEGITURAK**  
**IV. ATALA**

### 3.1.-NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

Orain arte Euskara Planaren edukiak aztertu ditugu eta proposamenak ere era horretan egin dira. Planaren bigarren zati honetan egindako proposamen guztiak biltzen dira, bildutako normalizazio-ekintza guztiak alorka sailkatuz. Alor bakoitzeko normalizazio-ekintza hauek kuantifikatu eta kostuak esleitzea dugu hurrengo pausoa. Urteko programak era egokian martxan jarri eta baloratzeko ezinbestekoa da kostuen dimentsionamendu hau egitea, ahalik eta zehatzen egitea gainera. Kostuak hizkuntza-normalkuntzarako teknikariaren (HNT) lanordutan edo diru-baliabideetan adieraziko dira, kasuan kasu.

Horrela bada, hurrengo orrialdeetako tauletan goitik beherako lau zutabe nagusi agertuko dira.

- A. Eremua
- B. Normalizazio-ekintza eta baliabideen deskribapena
- C. Kostua ordutan eta egilea.
- D. Kostua dirutan

Ondoren azaltzen dira lehen urteko helburuak lortzeko gauzatuko diren normalizazio-ekintza guztiak. Amurrioko Udalaren kasuan 9 eremu izango dira langai:

- 1. Hizkuntza-gaitasuna: prestakuntza eta trebakuntza.
- 2. Hizkuntza-aholkularitza.
- 3. Itzulpen-politika.
- 4. Kanpo- eta barne-harremanak.
- 5. Hizkuntza-irizpideak.
- 6. Komunikazio-plana.
- 7. Hizkuntza-paisaia.
- 8. jarraipena eta ebaluazioa.
- 9. Teknologia berriak eta baliabide informatikoak.

Plangintzaldi honetan 49 langile sartu dira bete-betean planean (aurreko plangintzaldian 36) eta Udalean bertan euskararen normalizazio-prozesuan orain arte egin den ibilbidea kontuan hartuta, honako proposamena planteatzen da.

Jarraian, hizkuntza normalizaziorako ekintza orokorrak jaso dira. [Dena den, arestian aipatu gisa, IV. Euskara Planaren V.Atalean tokiko erakundearen arloetan gauzatu daitezkeen ekintzak zehaztu dira.](#) Azpimarratzekoa da, gainera, arlokako ekintza plana zehazteko sail bakoitzeko arloburu edo langilearekin bilera egin dela, plan honen diseinua partehartze prozesura hurbilduta.



## EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

HIZKUNTZA GAITASUNA	ORDUAK (EGILEA)	KOSTUA
<p>Birziklatze eta norbanakoen trebakuntza 3 talderentzat:</p> <p>A. 3.HE birziklatze ikastaroa: 26 ikasle                      B. 2.HE birziklatze ikastaroa: 20 ikasle                      C. Trebakuntza ikastaroa: 4 ikasle</p>	<p>Taldekako birziklatze ikastaroak 40 ordu</p> <p>Norbanakoen trebakuntza saioek 120 ordu</p>	<p>A+B ikastaroak 3.040€</p> <p>C ikastaroa: 4.560€</p>
HIZKUNTZA AHOLKULARITZA	ORDUAK (EGILEA)	KOSTUA
Hizkuntzaren kalitatearen kontrola. Sortzen diren idatzietan egiten denaren kalitatea kontrolatzeko, astean 2 orduko ekitaldiak proposatzen dira.	70 ordu (HNT)	
Hizkuntza Aholkularitza eskaintzea langileei, batez ere planak zuzenean eragiten dietenei	80 ordu (HNT)	
Hiztegi terminologikoak eskura jartzea	15 ordu (HNT)	
HIZKUNTZA POLITIKA	ORDUAK (EGILEA)	KOSTUA
Itzulpenak: barne zein kanpora begirakoak. Interprete lanak egiteko tresneria.	200 ORDU (HNT) Kanpo zerbitzua	15.000€
Herritarrentzako zuzenketa/itzulpen-zerbitzua.	30 ordu (HNT)	
KANPO ETA BARNE HARREMANAK	ORDUAK (EGILEA)	KOSTUA
Langile bakoitzaren buletina egitea planaren berri emateko, bakoitzaren eginbeharrak eta helburuak zehaztuta. Buletin bakoitzeko 2 ordu kalkulatu da.	72 ordu (HNT)	
Trebakuntza-saioetan parte hartzen ez dutenentzat (1HE egiaztatua dutenak) eredu normalizatuak egokitu eta azaltzea.	21 ordu (HNT)	
Udal langile euskaldunek herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko borondatea dutela agertzeko kanpaina (2021ean «Nirekin euskaraz kanpainako argazkiak berritzea »).	20 ordu (HNT)	Inprimategiko bereizgarriak 600€
Komunikazio-zirkuluen kudeaketa: Zerbitzu Soziokulturaletan eta Zerga Bilketan arloetan burutuko da froga pilotu modura euskara erabiltzeko garaian sor litezkeen arazoak gainditu asmoz. Astero bi orduko saioa aurreikusi da.	100 ordu (HNT)	
Mintzalagun dinamika (astero ordu erdiz euskaraz aritzeko eta harremanak sendotzeko mintza praktika saioa)	128 ordu (HNT)	
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	ORDUAK (EGILEA)	KOSTUA
Lan jardunetan eta buletinean jasotakoaz gain, barne eta kanporako onartutako irizpideek, normalizatzeko-prozesua beharko dute (itzulpenetan, kontratazioetako baldintzen zerrendetan...).	50 ordu (HNT)	
Aurten jorratu nahi den kontratazio bakoitza aztertzeko batz best 20 ordu kalkulatu dira: 10 ordu dagokion teknikariarenak	50 ordu (Dagokion teknikariak)	

lirateke, idazkari eta kontuhartzailearenak 8 ordu, eta gainerako 2 orduak hizkuntza-normalizatzailearenak.	40 ordu kontuhartzaile eta idazkariak  10 ordu HNT	
<b>KOMUNIKAZIO PLANA</b>	<b>ORDUAK (EGILEA)</b>	<b>KOSTUA</b>
Langile bakoitzari buletina banatu, eta bertan jasotzen dena azaldu (Langile bakoitzari 2 ordu eskaintzea aurreikusten da)	72 ordu (HNT)	
Herritarrentzat informazioa prestatu	15 ordu (HNT)	
Planean zuzenean inplikaturik ez dauden langile eta sindikatuei informazioa eskaini	10 ordu (HNT)	
<b>HIZKUNTZA PAISAIA</b>	<b>ORDUAK (EGILEA)</b>	<b>KOSTUA</b>
Errotuluen, zigiluen eta beste elementu batzuen egokitze-prozesua eta jarraipena egin	30 ordu (HNT)	
<b>JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>	<b>ORDUAK (EGILEA)</b>	<b>KOSTUA</b>
Sei hilabeteko balorazioa (30), lehen urteko jarraipenaren oinarria (50) eta langileen autoebaluazio gidatua (20).	100 ordu (HNT)	
Jarraipeneko datuak burutu eta Jarraipen Batzordearen txostena egin.	60 ordu (HNT)	
<b>TEKNOLOGIA BERRIAK ETA BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>	<b>ORDUAK (EGILEA)</b>	<b>KOSTUA</b>
Baliabide informatikoen euskarazko bertsioak eskuragarri bihurtu (30 ordu), aplikazio informatikodun enpresa hornitzaileekin harremanetan jarri. Ondoren jarraipena eta ebaluazioa burutu (15 ordu).	45 ordu (HNT) Kanpo Zerbitzua	4.000€

Laburbilduz, hizkuntza-normalkuntzarako teknikariaren (HNT) 1.346 ordu, Kontuhartzaile eta Idazkariaren 40 ordu, dagokion Teknikariaren 50 ordu eta Kanpo-zerbitzuetatik 27.200€ beharko dira plana martxan jartzeko (Ez dira hemen sartzen langileen dedikazio-orduak, ezta jarraipenerako batzordearenak ere).

## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ARLOKAKO EKINTZA PLANA

Atal honen sarreran aipatu gisa, Amurrioko Udalaren IV.Euskara Planaren baitan, ekintza estrategikoez gain, taktikoak ere zehaztu dira. Horretarako, udal langileekin batera partehartze prozesua egin da, eta arloburuekin arlokako diagnostikoa osatu da, euskararen erabilera sustatzeko plangintzaldiak dirauen bitartean gauzatu daitezkeen ekintzak zehaztuz. [Emaita, III. Eranskinean dago ikusgai. Finean, udal barnean euskararen presentzia handitzeko 142 ekintza dira.](#)

### AZPIEGITURA

Plan honekiko arduradun bakoitzaren funtzioak eta eginbeharrak jaso nahi dira atal honetan. Orain arte osatutako baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko hurrengo azpiegitura eta funtzioak proposatzen dira:

#### HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA (HNT)

- Hizkuntza-prestakuntza eta aholkularitza: derrigortasun-daten kudeaketa eta betetze-maila, hizkuntza-prestakuntza zein trebakuntza saioen koordinazioa eta jarraipena.
- Trebakuntza espezifikoa eta aholkularitza, erabakitako itzulpenen ardurua eta ereduaren egokitzapenak.
- Komunikazio-zirkuluak: zirkuluen plana garatu, saioen prestakuntza, garapena eta jarraipena.
- Lan jardun eta alorkako edukien garapena eta jarraipena.
- Hizkuntza-irizpideen lanketa, garapena eta jarraipena, horretarako izendatutako erantzuleekin batera.
- Dinamizazio eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea eta jarraipena egitea. Hitzarmengintza-lanak.
- Jarraipen batzordeen kudeaketa eta batzorde honetarako txostenak prestatzea eta aurkezpenak egitea.

#### TALDE ERAGILEA

Partaideak: Herritartasun Batzordeko zinegotziak, idazkaria eta hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria. Betebeharrak:

- Planaren kudeaketaren ardurua eta erantzukizuna, hizkuntza-normalkuntzarako teknikariarekin eta Jarraipen Batzordearekin koordinatuz.
- Planetik sortutako egoerei erantzuna ematea edo eskaerak Jarraipen Batzordeari bideratzea, hala dagokionean.
- Lan jardunka, alorka eta hizkuntza-irizpideka proposatutako neurrien betetze-maila aztertzea eta lantzea.
- Planaren jarraipena eta jarraipen-txostenak baloratu eta egokitzapen-neurriak proposatzea.

#### JARRAIPEN BATZORDEA

Partaideak:

- Herritartasun Batzordeko arduradun politikoa/k.
- Udalak erabakitako beste koordinatzaile eta partaidea/k.
- Udaleko hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria, hala dagokionean.

Betebeharrak:

- Urteko jarraipena egitea, jarraipen txostena aztertu eta balorazioa egitea.
- Helburuen betetze-maila baloratzea eta egokitzapen-neurriak onartzea
- Tokiko Gobernu Batzarra eta talde-eragileari helarazi beharreko iradokizunak lantzea eta koordinatzea.
- Euskara-plana martxan duten beste udalekin harremanak estutu eta finkatzea.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinazioa bermatzea.

## TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Betebeharrak:

- Talde eragileak egindako proposamenak eta iradokizunak baloratzea eta erabakiak hartzea
- Plana aurrera eramateko baldintzak erabakitzea eta baliabideak esleitzea.
- Planaren urteko helburuen betetze-mailaren balorazioa egitea eta hizkuntza-irizpideak progresiboki martxan jartzeko erabakiak hartzea.
- Planaren garapen osatua bermatzea, udalari dagozkion helburuak lortze aldera.

## KRONOGRAMA

EKINTZA	URTEA	HIRUHILEKOA (HH)
Euskara Plana adostu, HPSri txostena eskatu	2021	2HH
Planaren onarpena Osoko Bilkuran	2021	3HH
Langileei IV. Euskara Planaren transmisioa egitea	2021	3HH
Euskara ikasteko ikastaroen inguruko informazioa zabaldu eta langile interesdunen izen-ematea egitea	2021	2HH
Euskarazko aplikazio informatikoak aztertzea, eta udal langileen artean instalatzeko aukerak aztertzea	2021	3HH
Urteko balorazioa egitea	2022	4HH
V.Euskara Planaren diseinua abiatzea	2022	4HH
Udal Musika Eskolako I. Euskara Plana osatzea	2021	3HH
Amurrio Bideaneko I.Euskara Plana osatzea	2021	3HH
Kultura Etxeko I.Euskara Plana osatzea	2022	4HH
Kiroldegiko I.Euskara Plana osatzea	2022	1HH
Amurrio Antzokiko I. Euskara Plana osatzea	2022	1HH
Udaleko hizkuntza protokoloa osatzea eta langile guztiekin elkarbanatzea	2021	3HH
Langile bakoitzari euskara ikasteko baliabide eta eskaintzen berri ematea	2021	3HH
Birziklatze Ikastaroak antolatzea, langile interesdunekin	2022	1HH
Euskara ikasteko liberazio aukera eskaintzea, eta eskaerak aztertzea (urtero bakarria onartzeko)	2021	4HH
Euskararen erabilera sustatzeko motibazio saioa antolatzea	2021	3HH
Amurrioko Udaleko Mintzalagun taldea sortzea eta praktika saioetarako taldeak osatzea	2021	3HH
Udaleko langileen telefono zerrendaren afitxa diseinatzea eta langileen artean banatzea, hizkuntza gaitasuna erantsita (Ahobizi edo Belarriprest ikonoak gehituta)	2021	3HH
Sailen sarreretan kartel edo afitxa bat jartzea, bertako langileen hizkuntza ezagutza aitortzeko (postuak eta Ahobizi edo Belarriprest ikurrak zehaztuko dira)	2021	3HH

Udal langileen email sinadurak berritzea "nirekin euskaraz hitz egin (edota idatzi) dezakezu" oharrarekin	2021	3HH
Informazioa euskaraz jaso nahi duten udal langileen errolda egitea, zenbait dokumentazio hizkuntza horretan jasotzeko (kontratuak, nominak...)	2021	3HH
Langile berrientzat harrera eta barne funtzionamendu gidak sortzea euskaraz, lan hizkuntza euskara izatea indartzeko	2021	3HH
Euskarari bi minutu ikastaro azkarraren kudeaketa (eguneroko buletinaren diseinua eta bidalketa)		EGUNERO
Udako barnetegi edo ikastaroei buruzko informazioa bidaltzea udal langileei	2021	2HH
Udako barnetegi edo ikastaroei buruzko informazioa bidaltzea udal langileei	2022	2HH
Elkarteen dirulaguntza deialdietan "euskara sustatzeko ekintzak" atala gehitzea	2022	4HH
Herritarren kutxazain erabiltzeko gida sortzea euskaraz bideoan (gazteleraz azpigitulatura, eta azalpenak elebitan gehitzea idatzizko euskarrian)	2021	3HH
Espazio edo materiala eskaera nola egin gida sortzea euskaraz bideoan (gazteleraz azpigitulatura, eta azalpenak elebitan gehitzea idatzizko euskarrian)	2021	3HH
Dirulaguntzak eskatzeko prozedura gida sortzea euskaraz bideoan (gazteleraz azpigitulatura, eta azalpenak elebitan gehitzea idatzizko euskarrian)	2021	4HH
Elektronikoki eskaerak tramitatzeko gida sortzea euskaraz bideoan (gazteleraz azpigitulatura, eta azalpenak elebitan gehitzea idatzizko euskarrian)	2022	1HH
Kontratutako enpresei memoriaren laburpena edo ondorio nagusiak elebitan bidaltzeko eskatzea	2021	4HH
Autobus edo bidaia kontratazioetan euskara sustatzeko hizkuntza irizpideak ezartzea zerbitzu emaleei (hots, autobus gidariei)	2021	3HH
Herritarrei bidaltzen zaizkien idatzizko jakinarazpenetan gazteleraz soilik dauden ereduak zerrenda osatzea, plangintzaldi honetan itzulpenak egin eta elebitasuna bermatzeko	2021	3HH
Erabilera partekatuetarako eskura dauden ordenagailu portatiletan euskaraz konfiguratzeko programak	2021	3HH
K edo udal artxibo digital orokorrean, langile ororentzat diren karpitetan behintzat izenburuak elebitan egotea	2021	3HH
HAZ kutxazain automatikoko kanpoko kontzeptuak elebitan ere jartzea	2021	3HH
Udaletxeak sortutako fakturak elebitan diseinatzea, horretarako ereduak sortuta	2021	3HH
Lizentzia, baimen eta oharren intzidentzia kutxa euskaratzea	2021	1HH
Inprimagailuak euskaraz konfiguratzeko	2021	3HH
Kafe makinako eskaintza euskaratzea	2021	3HH
Sukaldeko erabilera arauak euskaraz sortzea (eta elebitan eskaintzea)	2021	3HH
Udal langileen informaziorako panela berrantolatzea	2021	3HH
Firmadoc eta Udaleko lan tresnen bideotutorialak sortzea	2021	3HH
Udaleko itxaron guneetan euskarazko irakurgaiak kokatzea (Euskara zerbitzuetara iristen diren aldizkariak)	2021	4HH

# ERANSKINAK

## V.ATALA



**AMURRIO**

**UDALA**  
**AYUNTAMIENTO**  
EUSKARA ARLOA

---

**EUSKARAREN BARNE ETA KANPO ERABILERA  
SUSTATZEKO ARLOKAKO EKINTZA PLANA**

## AHOZKO ERABILERA SUSTATZEKO EKINTZAK

1. Euskarazko arreta berma dezaketen langileen identifikazioa (lantokiko mahaietan eta arloen sarretan komunikazio euskarriak sortuta)
  - a. Arlo bakoitzaren sarbidean langile edo postuen identifikazioa egitea, hizkuntza ezagutza balioan jarritz.
  - b. Arlo bakoitzean euskarazko arreta eskain dezakeen langile bat behintzat egotea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko.
2. Langile berrientzat harrera gida sortzea, euskara administrazioko zerbitzu eta lan-hizkuntza bilakatzeko.
3. Udal langileen artean Mintzalagun dinamika eskaintzea, astero 30 minutuz euskara praktikatzeko aukera eskainita lankideen arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak euskaraz izatea bilatzeko.
4. Arloaren arabera, ondorengo ekintza espezifikoak sustatzea:
  - a. Herritarrei zuzendutako Zerbitzu Soziokulturaletan, ikastaro edo jardueren eskaintzaren barruan, izen emate fitxetan euskara ulertzen duten galdetzea, eta horren arabera erabakitzea gerora talde edo ekintza hori euskaraz, elebitan edo gazteleraz egin erabakitzeko.
  - b. Udalak kontratatutako zerbitzuetan, dagokien izaeraren arabera, pleguetan propioki jasotzea zerbitzua euskaraz eskaintzeko beharra herritarrei eskaintzen bazaie.
  - c. Kontratazioetan hizkuntza klausulak gehitzea, horretarako propioki Euskara Zerbitzuari txostena eskatuta pleguak onartu aurretik.

## IDATZIZKO ERABILERA SUSTATZEKO EKINTZAK

1. Arloka udal mailan elebitasuna bermatzeko agiri edo dokumentuen zerrenda osatzea, baliabide horiek euskaratzeko. Behin baliabide horiek sortuta, txantiloiak arloetako langileekin partekatuko dira, aurrerantzean erabili ahal izateko.
2. Udal barneko dokumentazioa euskaratzea:
  - a. Langile berrientzat harrera gida, euskara administrazio hizkuntza bilakatzeko.
  - b. Baimen orriak.
  - c. Firmadoc edo udaleko lan tresnen bideotutorialak sortzea .
  - d. Espazio komunetako erabilera arauak (Adb.: jangela) euskaraz egotea.
  - e. Dokumentu partekatuetako izenburu guztiak behintzat elebitan egotea, izenburua behintzat.
  - f. Euskaraz ulertu eta egiteko gai diren langileen email sinaduretan zintak gehitzea:
    - i. Nirekin euskaraz hitz egin edota idatzi dezakezu.
    - ii. Nirekin euskaraz idatzi dezakezu.
3. Egoteko edo itzaroteko espazio komunetan euskarazko irakurgaiak (prentsa, aldizkariak) kokatzea.



### EUSKARA PLANAK DISEINATZEA ETA GAUZATZEA

1. Euskararen erabilera sustatzeko IV. Plana diseinatzea eta gauzatzea (2018-2022)
2. Udalaren erakunde autonomoetan eta zerbitzu azpiegituretan Euskara Planak diseinatu eta gauzatzea:
  - a. Udal Musika Eskola (lehenasunez, plangintzaldi honetan gauzatzeko ekintza, udal langileak baitira)
  - b. Amurrio Bidean (Lehenasunez, plangintzaldi honetan gauzatzeko ekintza, udal langileak baitira)
  - c. Kultura Etxea
  - d. Kiroldgia

### UDAL LANGILEEN ZERBITZU ETA LAN HIZKUNTZA EUSKARA BILAKATZEA

3. Udaleko hizkuntza protokoloa osatzea, eta langile guztiekin elkarbanatzea. Horrez gain, langile berriak hastean, baliabideen artean dokumentua sortzea.
4. Langile bakoitzari euskara ikasteko eskura dituen baliabide eta eskaintzen berri ematea (Ikus IV. Euskara Planaren 38.orria).
5. 2 urtean behin birziklatze ikastaroak antolatzea, interesa duten langileekin.
6. 4 urtean behin 4 langileri (urtero bat) euskara ikasteko liberazio aukera eskaintzea; ikasketak eta lana uztargarriak izan daitezzen (jendaurreko izaeradunak lehenetsiko dira, eta gizarte izaerakoak ondoren).
7. Euskararen ahozko erabilera sustatzeko motibazio saioak antolatzea.
8. Udal langileen artean Mintzalagun dinamika eskaintzea, astero 30 minutuz euskara praktikatzeko aukera eskainita lankideen arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak euskaraz izatea sustatzeko.
9. Udaletxeko langileen posta eta telefono zerrenda telefonoaren aldamenean jartzeko moduan edukitzeko diseinatzea, denek paperean eskura izateko. Bertan jasoko litzateke langile bakoitzaren hizkuntza gaitasuna ere, ahoa (euskaraz hitz egiteko gai da, solasteko erraztasunak ditu), belarria (euskaraz ulertzeko gai da, baina aritzeko zailtasunak ditu) edo hutsune batekin (ez du euskara ulertzen).
10. Sailen sarreran, arloen seinale edo afitxa bat jartzea, bertan kokatuta dauden arloen hizkuntza ezagutza aitortuta (ahoa, belarria edo hutsunea jarrita).
11. Udal langileen sinaduretan “nirekin euskaraz hitz egin (edota idatzi) dezakezu” zinta gehitzea
12. Informazioa eta dokumentazioa euskaraz jaso nahi duten udal langileen errolda egitea, zenbait dokumentazio hizkuntza horretan jasotzeko (kontratua, nominak...)
13. Langile berrientzat harrera eta barne funtzionamendu gidak euskaraz sortzea, lan harreman hizkuntza euskara izan dadin hasieratik.
14. Euskararen ezagutza areagotzeko “Euskarari bi minutu” ikastaro azkarra eskaintzen jarraitzea egunero, posta elektronikoko bidez.
15. Udako barnetegi edo ikastaroei buruzko informazioa bidaltzea udal langile guztiei, interesdunek izena emateko aukera izan dezaten, udalak IV. Euskara Planean aitortzen dituen laguntzak aipatuz.
16. Administrazioan erabiltzen diren programa informatikoen zerrenda osatzea, eta euskarazko zerbitzua duten tresnak hizkuntza horretan instalatzea 3HE duten langileen ordenagailuetan (2HE dutenei aukeran emango zaie).

## EUSKARAREN BARNE ETA KANPO ERABILERA HANDITZEA

### DIRULAGUNTZAK

17. Elkarreentzako dirulaguntzen plan estrategikoan “euskara sustatzeko plana” atala txertatzea proposatzea, konpromisoa hartu eta bete dezaten.
18. Elkarreentzako memoria eta plangintzetan, “euskara sustatzeko ekintzak” atala bermatzea, horretarako ebaluazio fitxak entregatuta. Era berean, Udalak diruz babesten dituen zerbitzu edo jardueren kanpo komunikazioa (sare sozialak, kartelak...) elebitan doazela bermatzea.
19. Ondorengo gidak sortzea elebitan (ikus-entzunezko eta aldizkari-gida formatuetan), Udala herritarrei gerturatzeko eta tramitazioak errazteko asmoz euskara lehenetsita.
  - a. Herritarren kutzazaina erabiltzeko gida
  - b. “Espazio edo material eskaera nola egin”
  - c. “Dirulaguntzak eskatzeko prozedura gida”
  - d. “Elektronikoki eskaerak tramitatzeko gida”

### KONTRATAZIOAK

20. Kontratazioei dagokienez, zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukera balioan jartzea pleguetan eta txosten teknikoetan.
21. Zerbitzua euskaraz emateko konpromisoa eskatzea enpresa esleipendunei beti, zerbitzuaren izaera eta hartzaileak aintzat hartuta.
22. Kontratututako enpresei memoriaren laburpena edo ondorio nagusiak elebitan bidaltzeko eskatzea.
23. Autobus edo bidaia kontratazioetan euskaraz harrera egitea eskatzea gidariei, eta horretarako baliabideak eskaintzea arlo desberdinetako zerbitzuak ematerakoan.

### HIZKUNTZA PAISAIA

24. Kanpoko hizkuntza paisaian elebitasuna bermatzen jarraitzea (seinalitika, kartelak eta abar).
25. Herritarrei igortzen zaizkien jakinarazpen guztiak elebitan egotea (eta horretarako euskarara itzuli beharrekoen zerrenda egitea arloka).
26. Barneko hizkuntza paisaiaren egoera plangintzaldika aztertzea, udal barneko espazioetan euskararen idatzizko presentzia areagotu dadin.
27. Erabilera partekaturako arloetan dauden portatiletako programak euskaraz instalatzea (herritarren, elkarreentzako eta udal langileen arteko hartu-emanetan euskararen presentzia areagotu dadin).
28. K edo Udal artxibo digital orokorrean, langile guztiei zuzendutako dokumentazio edo karpeten izenburuak elebitan egotea.
29. HAZeko kutzazain automatikoan dauden kanpoko kontzeptuak elebitan ere jartzea.
30. Udaletxeak sortutako fakturak elebitan diseinatzea.
31. Lizentzia, baimen eta oharren intzidentzia kutxa euskaratzea.
32. Inprimagailuak euskaraz konfiguratzeko.
33. Kafe makinako eskaintza euskaratzea.
34. Langileen txokoko erabilera arauak euskaraz sortzea (eta elebitan eskaintzea).
35. Udal langileen lanordu makinaren aldameneko panela informazio motaren arabera sailkatzea (sindikatuaren kortexoa, informazio orokorrarena, eta langileen oharrena).
36. Langileen txokoko eta komunitateko idatzizko euskarrietan elebitasuna bermatzea.

### ALKATETZA, IDAZKARITZA, ETA HAZ

#### ALKATETZA

1. Herritarrei eta udal langileei bideratutako mezuak elebitan joateko baliabideak sortzea (mezu ereduak)
2. Udaltzako aktak elebitan argitaratzea, horretarako ereduak sortuta (mozioak berez elebitan daude, eta ordenantzak ere).

#### IDAZKARITZA

3. Udal langileei bidaltzen zaizkien mezu orokorrak (errepikatu ohi direnak) euskaratzea; elebitan ere helarazteko.
4. Kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak eta klausulak txertatzea, horretarako ereduak artxiboa sortuta. Horretarako ereduak sortzea.
5. Jakinarazpenen ereduak sortzea elebitan.
6. Fakturen ereduak elebitan ekoiztea.
7. Udaltzako aktak elebitan helaraztea.

#### HAZ

8. Herritarrei erantzuteko dokumentu ereduak elebitan sortzea, eta horretarako dauden dokumentu guztien zerrenda osatzea (euskarri horien hizkuntza zehaztuta).
9. HAZko langileekin euskaraz hitz egiteko aukera ikusgarri egotea
10. Administrazio Elektronikoa euskaraz sozializatzeko multimedia baliabideak sortzea (45 urtetik beherakoek bermatua dute euskara ulermena), gida liburuak elebitan egin arren. Ikus-entzunezkoak eta gida multimedialak sortzea planteatzen da, euskaraz ekoizte eta gazteleraz azpigitulaturik.

### GIZA BALIABIDEAK

1. Giza Baliabideetako dokumentu guztien zerrenda egitea, eta izaera publikoa duten guztiak (hots, langileekin partekatzen den oro) euskaraz ere eskaintzea. Alegia, langileekin partekatzen den komunikazio oro elebitan egotea.
2. Langile edo zerbitzu bat kontratatzean, komunikazio hizkuntza galdetzea eta bermatzea (euskaraz, gazteleraz edo elebitan).
3. Kontratuak euskaraz eta gazteleraz eskaintzea langile berriei, egun gazteleraz soilik egiten da (SIGEPen ez dago euskarazko eredurik, sortu beharra dago).
4. Langileen egutegia euskaratzea, baita arlokako opor egutegia ere.
5. Udaletxeko espazio desberdinetan dauden oharrak berritzea eta elebitan jartzea.
6. Urtero hizkuntza eskakizunak eguneratzea, maila igo dutenen egoera aldatzeko.
7. Formazio ikastaroak euskaraz ere eskaintzea, ikastaro erakargarriak planteatuta.

### ZERBITZU SOZIOKULTURALAK

#### EUSKARA

1. Amurrioko Udalaren IV. Euskara planaren diseinua eta garapena egitea.
2. Udal langileen Harrera gida sortzea, eta euskaraz ere egotea.
3. Udal barneko programa eta funtzionamenduari buruzko bideotutorialak euskaraz ekoiztea (gazteleraz azpigitulaturik), langile berrien inkorporazio eta lan hizkuntza euskara izate aldera.

4. Elkarreentzat dirulaguntza prozedura azaltzeko gida euskaraz sortzea, baita bideotutoriala ere.
5. Udalerrian euskaraz diren ekintzak promozionatzeko "Amurrioko Euskararen Agenda" sortzea eta zabaltzea.
6. Udal pleguak elebitan eskaintzen joatea, horretarako baliabideak dauden heinean.
7. Elkarreekin euskara diagnostiko eta plana sustatzeko proiektua diseinatzea, Euskara Arloarekin elkarlanean elkarreent egitasmoetan euskararen presentzia handitzeko.
8. Euskara ikasteko diru-laguntza eskatzeko prozedura orri bisualagoa sortzea, eta urtero promozionatzea.
9. UEU ikastaroetako diru-laguntza eskatzeko prozedura orri bisualagoa sortzea, eta urtero promozionatzea.
10. Begirale ikastaroa egiteko diru-laguntza eskatzeko prozedura orri bisualagoa sortzea, eta interesdunei igortzea.
11. "Kirola euskaraz bizi" edo "Kultura euskaraz bizi" gisako dinamikak antolatzea ikasturte hasieran (denboraldiko izen-ematea egiten den garaian), herriko elkarreent lana sozializatzeko eta ikusgarritasuna emateko.
12. Kirol arloarekin batera, Etorkizuna futbol taldekoekin bezala, Saraobe saskibaloit taldean, Aresketa Gimnasia Erritmikoaren Klubean eta Amurrioko pilota eskolan euskararen erabilera sustatzeko dinamika abiatzea.
13. "Amurrio euskaraz hezten" hezitzaileen topaketa edo trebakuntza saioak antolatzea, udal ikastaro eta tailerrean parte hartzen duten espezialista guztien kontzientziazioan eta euskararen normalizazioan eragiteko.
14. "Hauxe da" herriko aldirakari dagokionez, plangintzaldi honetan edukien %43,52 (2016ko Amurrioko euskararen ezagutza mailari dagokion portzentaia) euskaraz argitaratuko ditu, hau da, argitaratzen diren 12 orrialdeetatik 5,22 orrialde.

#### HEZKUNTZA ETA OSASUNA

15. Txosten teknikoetan elebitasuna bermatzeko administrari laguntzaileek baliabide gehiago izatea.

#### KIROLA

16. Dirulaguntzen plan estrategikoan euskara ezagutza eta erabilera eskatzea edo baloratzea.
17. Kirol azpiegiturietako euskarrietan euskararen presentzia handitzea: kartelak elebitan daude, baina markagailuak eta beste aztertu behar dira.
18. Kiroldagiko ekintzetan euskararen presentzia handitzea, zeharlerro gisa. Horretarako, batetik, izen-emateetan euskaraz ulertzen duten galdetuko da inskripzio fitxetan (eta horren arabera zehaztuko da taldearen hizkuntza gerora). Eta, bestetik, kontratatutako langileei euskara ezagutza eta erabilera konpromisoa eskatuko zaie zerbitzua eskaintzean.
19. Kiroldagiak Euskara Plana izatea, Euskara Zerbitzuekin elkarlanean sortuta.
20. Hitzarmena duten kirol taldeekin euskara euren jardunean sustatzeko motibazio eta taktika saioak antolatzea. Kirol taldeek euskara barneratzeko eta kanporatzeko sustapena egitea (Gutxienez eskola kirolean), horretarako kontzientziazio eta motibazio saioak antolatuta.
21. Euskaraz diharduten kirol taldeen lana sozializatzeko eta ikustarazteko ekimenak antolatzea.

#### KULTURA

22. Dirulaguntzetan euskara plana edo sustatzeko konpromisoak eranstea (komunikazioetan euskararen presentzia eskatuzetik harago).
23. Ikastaroetan izen-ematean euskara ulertzen duten galdetzea, zerbitzuaren hizkuntza baloratzeko.
24. Udal Musika Eskolako Euskara plana egitea
25. Arte Eskolan eta Dantza Eskoletan euskara sustatzeko planak diseinatzea, Euskara Zerbitzuekin batera.

26. Nagusien Kontseiluen aldizkarian euskara ikasteko baliabideak eskaintzea. Oinarrizko ezagutza handitzeko euskara ikastaro praktiko eta arinak antolatuta.

#### BERDINTASUNA

27. Hitzaldi edo jardueretan xuxurlari edo zuzeneko interpretazioa eskaintzea.
28. Gaiaren arabera erabakitzea jardueraren hizkuntza nagusia.
29. Izen-emateetan (emailez den kasuetan) euskara ulertzen duten galdetzea, jardueraren hizkuntza nagusia baloratu ahal izateko.

#### ANTZOKIA ETA JAIK

30. Antzokiko harreran dauden langileek lehen hitza euskaraz egitea. (Sarrera gehien saltzen dituztenekin baloratu behar da aukera). Kultura etxean saltzen dira sarrera gehien, hala ere.
31. Antzokiko programazioan euskarazko ekitaldien eskaintza handitzea.
32. Jaietako ekintzetan euskarazko ekitaldien azterketa egitea, euskararen kale presentzia areagotzeko (eta azterketa horren emaitzen arabera helburuak ezartzea).
33. Galeria multimedia ekimenean euskararen presentzia handitzea. Hots, hizlariak euskara ezagutza badute, euskal hizkuntzan mintzatzera animatzea.
34. Jai Kuadrilen arteko harremanetan euskara sustatzea (bileretan eta abar).
35. Karrozen ekimenean euskara presente egoteko oinarriak aldatzea.
36. Jai kuadriletako diru-laguntzetan euskara presente egoteko hizkuntza irizpideak ezartzea.
37. Diru-laguntzetan euskara plana edo euskara sustatzeko ekintzak baloratzea.

#### PARTE HARTZEA

38. Euskararen erabilera parte hartze prozesuetan bermatzeko funtzionamendua eta metodologiak baloratzea.
39. Herrilaguntzaileen lan poltsatik kontratatutako beharginei euskara eta genero formakuntza saioa eskaintzea (eta parte hartzea eskatzea)
40. Parte hartze prozesuetan (eta saio irekietan) zuzeneko itzulpengintza interpretazioa eskaintzea.
41. Intzidentzia/jasoerak: dokumentu txantiloia elebitan jartzea.

#### LIBURUTEGIA

42. Euskara praktikatzeko ikastaroak eskaintzea interesa duten langileei.
43. Absysnet aplikazioa eta bestelakoak euskaraz konfiguratzea.
44. Heldu erdaldunek euskarazko oinarrizko hiztegia eskatzeko infografia edo hiztegia ikusgai jartzea; euskararen erabilerarako hurbilpen gisa.

## ZERBITZU EKONOMIKOAK

1. Firmadocen txostenak eta dokumentuak elebidunak izateko euskarria moldatzea, Arabako Foru Aldundiari eskaera egitea.
2. Fakturen konprobaketa arloetan egiteko mezu ereduak sortzea elebitan.
3. HAZera igortzen diren mezuak (ordainketa epeak jakinaraztekoak eta beste) elebitan egitea
4. Kutxazaina kudeatzeko programa elebitan jartzea eskatzea enpresari.
5. Eskaera Orrien zerrenda euskaraz ere egotea, alegia, elebitan sortzea.
6. Proposamenak elebitan egiteko ereduak sortzea.
7. Kontuhartzailearen informeak elebitan sortzea, ahal den heinean.

## GIZARTE ZERBITZUAK

1. Arloko langileen artean, hizkuntza ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna identifikatzea.
2. Txosten ereduak euskaraz ere sortzea, elebitasuna bermatzeko udal dokumentuetan aurrera begira.
3. Diru laguntzak ematean euskara sustatzeko ekintzak eskatzeko lanketa egitea, elkarteei helburu edo erronka hori ere egozteko.
4. Kontratazio berrietan euskararen ezagutza eskatzea (2HE gutxienez).

## OBRAK ETA ZERBITZUAK

1. Obra eta zerbitzuen seinalitika aztertzea, eta euskararen presentzia indartzea euskarri horietan (txartelak, seinaleak...).
2. Hesietako mezuak edo kartelak elebitan bermatzea beti.
3. Herritarren eskakizunei erantzuteko euskarazko mezu ereduak sortzea.
4. Oinarrizko euskara hiztegia sortzea, arloko langileen artean zabaltzeko.
5. Ikastetxeetako eskuhartze edo mantenu lanetan oinarrizko komunikazioa euskaraz egiteko gai izateko trebatzea langileak.
6. Kontratazio berrietan euskararen ezagutza eskatzea (2HE gutxienez).

## LURRALDE TASUNA

1. Motibazio saioak, langileen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko (horren ondorioz, lan hizkuntza aldatu da arlo batzuetan). Arloka (Ingurumena, Mendiak...) euskararen erabilera handitzeko erronkak zehaztea.
2. Zerbitzua publikoa denean euskara beharrezkotzat jotzea enpresa esleitzean (kontratu txikietan ez da bermatzen, pleguetan bai). Modu horretan, Ingurumen, Euskara eta berdintasun planeko eskakizunak txertatzen joatea.
3. Udalaren aldetik, Batzar Administratiboekin komunikazioa elebiduna izateko bitartekoak sortzea (dokumentazio ohikoa elebidun bihurtzeko txantiloak osatzea).
4. Batzar Administratiboetan euskara sustatzeko planak diseinatzea, etorkizunean (euskaradunak areagotu ahala) gauzatzeko.
5. Batzar Administrazioen arteko garraio zerbitzuetan (ostiralero Amurriora bertaratzeko) zerbitzu gidarien euskara ezagutza puntuatzea pleguetan.
6. Aholkularitza Kontratazioetan elebitasuna eskatzea, eta euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea. Horrez gain, memoriak eta abarrak elebitan bidaltzea jasotzea.
7. Aresketamendi irekita dagoenean, zerbitzua euskaraz emateko baliabideak eskaintzea (harrera egiteko oinarrizko pautak).

## UDALTZAINGOA

1. Udaltzaingoen jarduteko protokoloetan euskararen aipamena gehitzea.
2. Udaltzaingoaren jardun publikorako (herritarrekin hartu-emanetarako) oinarrizko hiztegia osatzea, eta horren trebakuntza eskaintzea.
3. Udaltzaingoen lana antolatzerako orduan, euskaraz artatzeko aukera bermatzeko txandak egokitzea, beharrezko den kasuetan.
4. Euskaraz dakiten udaltzainak uniformean identifikatzea "Nirekin euskaraz" serigrafiatuta edo bereizgarria jarrita, herritarrek euskaraz aritzeko aukera dutela jakin dezaten.
5. Telefonoko arreta zerbitzuan, lehen hitzak/aurkezpena euskaraz izatea: "Amurrioko Udaltzaingoa, bai esan?" eta erantzunaren arabera mantentzea hizkuntza.
6. Txosten edo informe ereduak sortzea, herritarrei elebitan erantzuteko.

7. Amurrioko elkarteekin (Txirrindularitza eta abar) zein hizkuntzetan nahi duten komunikatzea adostea. Ohituragatik gaztelera da nagusi normalki.
8. Euskaraz ahalduntzeko eta trebatzeko saio espezifikoak antolatzea udaltzaingoarekin.

## UDAL MUSIKA ESKOLA

1. Udal Musika Eskolako I. Euskara Plana gauzatzea
2. Udal Musika Eskolako hizkuntza irizpideak finkatzea (Musika irakasleak kontratatzean hizkuntza irizpideak ezartzea eta beste)
3. Udal Musika Eskolako 17 langileen hizkuntza gaitasuna handitzea, horretarako irakasleei euskara ikasteko baliabideak eta erraztasunak eskainita. Alegia, udal langileen eskura jartzen diren ikasketa aukerak bertako langileen artean ere zabaldu eta sustatzea.
4. Eskola adinean dauden ikasleen musika irakasleek euskara ezagutza izatea bermatzea, eta horretarako musika hezitzaileen lanpoltsak zabalitzea.
5. Matrikulazio kanpainan eta ikasturtean zehar, euskarazko eskaintza balioan jartzea eta ikusgarritzea (ikonoren batekin).
6. Udal Musika Eskolako klaustroetan euskararen presentzia bermatzea, interpretazio zerbitzua eskainita herritarren hizkuntza eskubideak (hots, elebitasuna) bermatzeko.

II. ERANSKINA  
LANGILEAK  
KONTRATATZEKO  
IRIZPIDEAK



“UDALHITZ 2008-2010 eta Amurrioko Udalaren baldintza onuragarriagoak” hitzarmena betearaziko da, berau 2008-11-27ko Osoko Bilkuran izan zen onartua eta bertan hauexek daude jasota:

7. art.: Hautaketa-prozesuetako haztapan eta puntuazioko irizpideak (08-09-18ko Tokiko Gobernu Batzordeak zuzenduta).

1.1.2.- Derrigorrezko HE ez duten lanpostuak.

Euskararen ezagutza horrela baloratuko da:

- 1. HE eta 2. HE duten lanpostuak: Euskararen balorazioa puntuazio osoaren % 10ekoa izango da.
- 3. HE eta 4. HE duten lanpostuak: Euskararen balorazioa puntuazio osoaren % 20koa izango da.

8. art.: Euskararen ezagutza hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarrietan.

Irizpide orokor gisa, aldi baterako kontratazioetarako indarrean den unean-uneko LPZn ageri den eskakizun-mailari eutsiko zaio.

LPZn ageri ez diren lanpostuetarako kontratazioetan, Udalaren Euskara Sailaren txostena eskatuko da eta berorren proposamenak bereganatu beharko dira, baldin eta langileen batzordeak onartutako aurkako arrazoi sendorik ez badago.

Dena dela, derrigortasun-data agortuta duten lanpostuak betetzeko, lanpostu horri dagokion hizkuntz eskakizuna, ezarritako bideetako edozein erabiliz, egiaztatzen duten langileak soil-soilik kontratatuko dira, baldin eta baldintza hori langile guztiek betetzen badute.

Hori dela eta, euskararen ezagutza eskatzen duten lanpostuetarako, euskarari ez zaio punturik emango; hala ere, lanpostua eskuratu ahal izateko, eskatzen den euskara maila egiaztatu behar da (azterketa bidez edo homologatutako titulu ofizial baten bidez). Lau hizkuntz eskakizun edo maila daude:

- Administrazio 1. HE edo horren baliokideak.
- Administrazio 2. HE edo horren baliokideak.
- Administrazio 3. HE edo horren baliokideak.
- Administrazio 4. HE edo horren baliokideak.

Lan-poltsetan dauden hautagaiek edozein unetan egiaztatu ahal dute euskararen ezagutza, hautaketa-prozesua amaitu ondoren bada ere. Horrela, hizkuntza eskakizuna edo euskararen ezagutza maila derrigorrezkoa edo ezinbesteko baldintza den lanpostuetarako deitu ahal izango zaie hautagai horiei.

Hautaketa-prozesuan euskara ez bada eskakizuna, 7. artikularen 1.4 puntuan ezarritakoaren arabera baloratuko da.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa denean, kontratazioak arin egin ahal izateko, lanpostu-zerrendan ez dauden kontratazioetarako eta iraupen laburrekoetarako, lege onartutako titulazioez gain, bestelako ikasketak ere ontzat eman daitezke, nahiz eta hizkuntza eskakizunak egiaztatze ofizialak ez diren, jarraian azaltzen diren baliokidetasun parametroen arabera:

1. HE:

- Euskaltegi homologaturen bateko 8. mailan egotea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza B ereduari egin izana.

2. HE:

- Euskaltegi homologaturen bateko 10. mailan egotea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza D ereduari egin izana.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa B edo D ereduari egin eta gainditu izana.

3. HE:

- Euskaltegi homologaturen bateko 12. mailan egotea.
- Erdi edo goi mailako titulazioaren bat euskaraz egin duela egiaztatzea.

Hala ere, aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak onartuko dira, soil-soilik, hiru urte baino gutxiago igaro badira ikasketak amaitu zituenetik. Hiru urteko epe hori igaro ondoren ikasketak euskaraz egin izana egiaztatzen ez badu, aipatu irizpideen arabera balizko hautagaiei dagozkien mailak jaitsi eta beheagoko maila batera pasako dira, hau da. 4. HE 3. HEra jaitziko da, 3. HE 2. HEra, 2. HE 1. HEra eta azkenik, 1. HE dutenek galdu egingo dute.

Hautagaien batek baloratu beharreko ikasketak hizkuntz eredu ezberdinetan egin baditu, baloratu behar den titulazioaren ikasketak soilik hartuko dira kontuan.

## KONTRATU ADMINISTRATIBOETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

### HE EXIGITZEA:

- Plangintzaldi honetan jendaurreko, gazteriarekin harremana duten edo gizarte izaera duten lanpostuetan dagokien HE eskakizuna exigituko da.
- 45 urtez gorakoen langileen erdiak betekizun honetatik salbuetsita egongo dira, beti ere enpresak uneoro zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna duen pertsona bat bermatzen badu.

### HE MERITU GISA BALORATZEA :

- Izaera orokorreko lanpostu berrien kasuan 1HE-2HE dagokien lanpostuen kasuan euskararen ezagutzari puntuazio osoaren %5 emango zaio. 3HE-4HE dagokien kasuan puntuazio hori %11koa izango da.
- Izaera orokorreko lanpostuetan lanean dauden langile guztien kasuan, hauen jarraipena ez kaltetzeko asmoz, %5 soilik puntuatuko da euskararen ezagutza plangintzaldi honetan.
- Izaera berezidun lanpostuetan aldiz (garbitzaile, lorazain...) euskara EZ da meritu bezala baloratuko.

III.ERANSKINA  
**LANGILEEN  
SENTSIBILIZAZIOA**

## AZTERKETAREN ABIAPUNTUA

2018-2020 plangintzaldirako orain arteko azterketaz gain, aparteko galdetegi bat osatu eta gauzatu da, Siadecok markatutako pautei jarraiki. Hala, langile profila, idatzizko harremana eta ahozko lan hizkuntza aztertu dira. Ondorengoak dira Amurrioko Udaleko langile guztiei galdetegia betearazi eta aztertu ostean, ateratako ondorioak. [Azpimarratzekoa da, ordea, Lanpostuen Zerrendako herenak baino ez duela osatu ariketa, eta beraz, datuak ez direla errealitatearekin erkatzeko fidagarriak. Gainera, inkesta bete duten denek ez dituzte galdera guztiak erantzun.](#)

### LANGILE PROFILA

- Amurrioko udal langileen azterketa eginez gero, egun beteta dauden lanpostuetatik 36 emakumezkoak dira, eta 29 gizonezkoak.

### LANPOSTUAREN XEHETASUNAK

- Lanpostuen hizkuntza eskakizunei dagokienean, 39k dute derrigortasun data ezarrita (72 lanpostutatik, 7 hutsik badaude ere).
- Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila %67,69koa da.
- Administrazio atalaren izaerak aztertuta, ondorengoak da Amurrioko Udal langileen sailkapena: 14 jendaurrekoak dira, 26 gizarte izaerakoak, 14 orokorrak eta 10 atal bereziak.

Ondorengo galderak ez dituzte langile guztiek erantzun, eta beraz, datuak ez dute %100 ematen (85. orritik 87. Orrira dauden ondorioetan). Inkesta bete duten langileen aitortzetatik, ondorengoak da aipagarriena:

- Langileen euskara maila aztertuta, %50ak ongi ulertzen du, %35ak nahiko ongi eta %5ak zertxobait. Hortaz, %85 da euskaraz aritzeko gai.
- Hitz egiterako orduan, baina, %55 sentitzen da ongi edo nahiko ongi egiteko gai.
- Irakumenaren kasuan, egoera hobea da: %85 moldatzen da nahiko ongi edo ongi.
- Idazmenean agertu dira oztopo gehien, %40 zertxobait idazteko gai baita, %60 ongi moldatu arren.

### EUSKARAREN BILAKAERA UDALEAN DUELA 5 URTETIK GAUR ARTE

- %45aren iritziz, lehen baino gehiago hitz egiten da, %15aren ustetan gutxiago, eta %40en iduriko berdin.
- Idatzizko komunikazioan, aldiz, %40k uste du erabilera areagotu dela, %40k berdin jarraitzen duela, eta %20k gutxiago.
- %60aren esanetan, euskararen erabilerak Amurrioko Udalean eragin positiboa izan du, %25aren iritziz ez positiboa ez negatiboa, eta %15rentzat negatiboa.
- Hizkuntza irizpideei dagokienean, %50ak aitortzen du gutxi dakiela, eta %35ak nahiko. %15ak soilik aipatu dute asko edo ondo ezagutzen dituztela.
- Norberaren lanean fokua jarrita, bakoitzaren laneko hizkuntza irizpideen ezagutzaz %15ak ez daki ezer, %5ak gutxi, %35ak nahikoa, eta %5ak asko.
- Azken 12 hilabeteetan euskararen normalizaziorako ekimenetan %20k soilik hartu du parte.
- Prestakuntzen alorrean, berriz, 2 lagunek bakarrik jaso dute.

### BALIABIDE INFORMATIKOAK

- Baliabide informatikoen artean, %5ak soilik du euskarazko bertsioa lehenetsita.
- Euskarazko formakuntza saioak egiteko eskainitako aukerak %30ak soilik baliatu ditu.
- Amurrioko Udalaren IV. Euskara Planaren baitan baliabide informatikoen zerrenda osatuko da, eta

euskaraz dauden programetan bertsioak eguneratuko dira.

## **HARREMAN MAIZTASUNAK**

- %90ak egunero du telefono bidezko harremana herritarrekin, eta %10ak bi astero.
- Aurrez aurreko hartu-eman maiztasuna, berriz, bestelakoa da: %75ak egunero du herritarrekin harremana, %15ak astero, eta %10ak bi astero.
- Bilera edo aurkezpen maiztasuna hilerokoa da gehienetan.
- Herritarrek erakundera bidalitako idatziak egunero irakurtzen dira %70aren aburuz.
- Udalaren izenean, herritarrentzat dokumentu edo idazki ofizialak idazteko maiztasuna, aldiz, arloaren eta funtzioaren arabera da: %50ak egunero egiten du, %40ak astero, eta %10ak bi astero hilean behin baino gutxiagotan.

## **IDATZIZKO HARREMANA**

Ondorengo joerak nabarmendu behar dira:

- %100ak idazten ditu testuak egunerokoan lanean, eta EAeko beste erakundeekin ere idatzizko komunikazio harremana du.
- %85ak barne idatzizko komunikazio ofizialak idazten ditu, eta Udalak kontratatutako erakunde edo enpresen dokumentu edo agiriak jasotzen ditu.
- Denek ala denek jasotzen dituzte Udalak kontratatutako erakunde edo enpresen dokumentu edo agiriak, eta %95ak bidaltzen die tokiko erakundeak kontratatutako erakunde edo enpresei.

## **AHOZKO LAN HIZKUNTZA**


- Harrera aldetik, hasierako hizkuntza euskara izaten da %40an, %15ak berdin erabiltzen ditu euskara zein gaztelera, eta %45ak gaztelera dihardu ia beti.
- Herritarren partetik, berriz, %65 gaztelera zuzentzen dira udalera, %15 elebitan, eta %30 euskaraz.
- Ondorioz, herritarrekin beti edo ia beti darabil erdara %70ak, euskara gailentzen da kasuen %15ean eta beti edo ia beti euskaraz dihardu beste %15ak.
- Aurrez aurreko harremanetan, ostera, langilearen hasierako hizkuntza gaztelera da hizketaldien %45ean, elebidunak dira hizketaldien %25, eta euskara gailentzen da %40an.
- Herritarren hasierako hizkuntza, ordea, gaztelera da batik bat (%65), elebitasunetik gertu badago %15 ere. Euskaraz zuzentzen direnak, beraz, %20 dira.
- Lankideekin euskaraz %10ak soilik hitz egiten du, %65ak beti edo ia beti gaztelera mintzatzen dela dioen bitartean. %25ak, berriz, pertsonaren arabera aldatzen du hizkuntza, baina elebitasunean kokatzen du bere burua edo jarduna.
- Lan bileren kasuan, %25 gauzatzen dira euskaraz, %10 elebitan, eta %65 gaztelera.
- Ordezkarri politikoekin erabiltzen den hizkuntza ere gaztelera da, %10 soilik aritzen baita euskaraz.
- Beste erakundeekin harremantzeko (Udalak, Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza kasu) elebitasuna areagotzen da. Gaztelera harremanak %45 dira, elebidunak %30 eta euskaraz %25.
- Bestalde, kontratatutako enpresa edo entitate pribatuekin erabiltzen den hizkuntza nagusia gaztelera da (%65).

## UDAL LANGILEEN SENTSIBILIZAZIO AZTERKETA

Siadecoko galdetegiak gain, udal langileen artean euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko sentsibilizazio maila ezagutzeko galdetegi bat sortu eta gauzatu zen 2021eko maiatzean. 66 langiletik 22k erantzun zuten (hots, herenak). Ondorengoak dira emaitzak:

### ARLOA

22 erantzun




### GALDETEGIEN ONDORIOAK

- Ahozko erabilerari dagokionez, langileen artean (hau da, barne-harremanetan) % 31,58 euskaraz dira, eta elkarrizketen % 68,42 gaztelaniaz.
- Amurrioko Udaleko langileen kanpo-harremanetan, berriz, elkarrizketen % 26,75 euskarazkoak dira, eta % 73,25 gaztelaniazkoak.
- Udaletik kanpoko idatzizko harremanetan, % 17,73 euskarazkoak dira, % 38,30 elebidunak eta % 43,97 gaztelaniazkoak. Beraz, euskararen indizea % 56,03koa da idatzizko erabileran (euskaraz eta ele bietan egiten diren komunikazioak).
- Amurrioko Udaleko langileen artean euskararen normalizazioa beharrezkoa da langileen % 86,4rentzat. Euskararen sustapenaren esparruan sentsibilizazioa identifikatze aldera, 6 pertsonak uste dute ez dela beharrezkoa ( % 13,6), 5ek normalena ( % 22,7), 8k garrantzitsua ( % 36,4) eta 6k oso garrantzitsua ( % 27,30).
- Era berean, langileek hizkuntza sustatzeko duten motibazioa honako hau da: % 4,5ek uste dute beren interes-maila % 20-40 artekoa dela, % 40,9 % 40-60 tartean kokatzen dela, % 40,9k uste dute haien inplikazioa % 60-80 artekoa izan daitekeela, eta % 13,6k % 80-100eko ehunekoan agertzen du interesa.


Euskararen erabilera udalaren barnean sustatzeko beharra ikusten duzu? / ¿Ves la necesidad de fomentar el uso del euskera dentro del Ayuntamiento?

22 erantzun



Zure kasuan, zenbateko interesa edo motibazioa duzu? / En tu caso, ¿cuál es tu nivel de interés o motivación?

22 erantzun





**AMURRIO**

**UDALA  
AYUNTAMIENTO**

EUSKARA ARLOA

---

UDAL MUSIKA ESKOLAREN

I.EUSKARA PLANA



Amurrioko Udaleko IV. Euskara Planaren baitan UDAL MUSIKA ESKOLAKo langileen hizkuntza gaitasuna eta eskakizuna ere jaso da. Horretarako diagnostikoa osatu da lehenbizi, eta segidan, euskararen normalizazioa sustatu eta erabilera areagotzeko jardunbideak zehaztu dira.

Ondorengo langileek osatzen dute egungo Udal Musika Eskolaren lanpostu zerrenda. Diagnostikoa osatu aurretik, postu bakoitzaren lanaldia eta funtzioa zehaztu dira, 2021eko Udal Musika Eskolako LPZri jarraiki:

DOTAZIO ZENBAKIA	LANGILEAREN POSTUA	JARDUNA EDO LANALDIA	EUSKARA GAITASUNA	HIZKUNTZA MAILA
101	Piano irakaslea	%100	BAI	1HE
102	Flauta irakaslea	%100	EZ	A1
103	Biolin irakaslea*	%64	BAI	3HE
104	Biolontzelo irakaslea*	%40	BAI	3HE
105	Kitarra irakaslea	%51	BAI	3HE
106	Akordeoi irakaslea	%35	BAI	3HE
107	Perkusio irakaslea	%49	EZ	B1
108	Saxofoi irakaslea	%34	BAI	B2-3HE
109	Tronpeta irakaslea	%30	BAI	3HE
110	Musika hizkuntza irakaslea	%100	BAI	3HE
111	Piano irakaslea	%100	BAI	-
112	Txistu irakaslea	%28	BAI	3HE
113	Kontrabaxu irakaslea*	%44	EZ	(3HE du ordezkioak)
114	Klarinete irakaslea	%44	EZ	-
115	Kitarra elektriko irakaslea	%100	EZ	-
116	Kantu irakaslea	%29	EZ	-
201	Zeregin anitzetako administraria	%100	BAI	B1

Gauzak hala, ondorengoak dira hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten irakasleak, 2021eko ikasturtean zehar. **Azpitarratzekoa da euskara ezagutza duten langileak %80 direla:**

- 3HE/EGA: 8 Irakasle (%40)
- B2: 3 (Irakasle guztien %15)
- B1: 4 (Irakasle guztien %20)
- A2: 1 (Irakasle guztien %5)
- Egiaztatu gabe: 4 (Langile guztien %20)

#### **EUSKARAREN ERABILERA UDAL MUSIKA ESKOLAN**

Gaur-gaurkoz, 291 ikasle daude Amurrioko Udal Musika Eskolan, (Plana egiteko 2020/2021 ikasturteko matrikulazio datuak hartu dira ardatz gisa). Klase batzuk banakakoak dira. Ondorengo taulan, eskuhartzeen hizkuntzak hartu dira aintzat, irakasleek aitortutako datuekin:

IKASTAROA	IKASLEAK GUZTIRA	EUSKARAZ (%)	GAZTELERAZ (%)
Piano irakaslea	30	2	28
Flauta irakaslea	27	0	27
Biolin irakaslea*	16	7	9
Biolontzelo irakaslea*	10	2	8
Kitarra irakaslea	11	0	11
Akordeoi irakaslea	4	0	4
Perkusio irakaslea	12	0	12
Saxofoi irakaslea	10	3	7
Tronpeta irakaslea	8	4	4

Musika hizkuntza irakaslea	69	54	15
Piano irakaslea	26	0	26
Txistu irakaslea	4	2	2
Kontrabaxu irakaslea*	6	1	5
Klarinete irakaslea	5	0	5
Kitarra elektriko irakaslea	23	0	23
Kantu irakaslea	11	0	11
Ordezko piano irakaslea	19	0	19
<b>IKASLEAK GUZTIRA</b>	<b>291</b>	<b>75</b>	<b>216</b>
<b>HIZKUNTZAREN %</b>		<b>%25,77</b>	<b>%74,23</b>

### IZAERAREN ARABERAKO SAILKAPENA

Izaerari dagokionez, jendaurrekoak dira postu guztiak. Alabaina, orain arte ez denez Euskara Planik egon, inork ez du derrigortasun datarik ez eta hizkuntza eskakizunik indarrean.

UDAL MUSIKA ESKOLA	KOPURUA	DERRIGORTASUNA	%	EGIAZTATUTA	%
JENDAURREKOAK	20	0	0	16	80
GUZTIRA	20	0	0	4	20

### HARREMAN HIZKUNTZA

HARREMAN HIZKUNTZA	
BARNE HARREMANAK	<p>UDAL LANGILEEKIN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><u>Ahozko harreman hizkuntza</u>: Gazteleraz izaten dira gehienetan. Udal langileen artean ez dago euskaraz hitz egiteko aukerarik. 2-3 kidek soilik erabiltzen dute.</li> <li><u>Idatzizko harreman hizkuntza</u>: Gazteleraz egiten dira nagusiki.</li> </ul>
KANPO HARREMANAK	<p>HERRITARREKIN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><u>Ahozko harreman hizkuntza</u>: Normalean gazteleraz aritzen dira. Ekitaldi publikoak elebitan egiten dira.</li> <li><u>Idatzizko harreman hizkuntza</u>: Komunikazioak elebitan egiten dira saiatzen dira. INIKA aplikazioaren bidez jartzen dira harremanetan guraso edo erabiltzaileekin. Komunikazio formalak elebitan egiten dira, eta informalak herritarraren hizkuntzaren arabera.</li> </ul> <p>ELKARTEEKIN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><u>Ahozko harreman hizkuntza</u>: Aiara Dantza taldearekin nozbait elkarlanean aritu dira. Musika Eskolako zuzendariak ez du euskara ezagutzarik, eta ondorioz, gazteleraz egiten dira harreman horiek.</li> <li><u>Idatzizko harreman hizkuntza</u>: Gazteleraz.</li> </ul> <p>BESTE ADMINISTRAZIOEKIN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><u>Ahozko harreman hizkuntza</u>: Ohikoan gazteleraz izaten dira, baina Udal Musika Eskolen bileretan euskara nagusitzen da, toki edo partaideen arabera hizkuntza egokitu arren.</li> <li><u>Idatzizko harreman hizkuntza</u>: Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin harremana elebitan da. Udal Musika Eskolen sareko komunikazioak euskaraz dira, bilera deiak eta aktak elebitan badira ere.</li> </ul>

## HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaiari dagokionean, Udal Musika Eskolan erabiltzen diren baliabide informatikoak, fisikoak zein digitalak aztertu dira.

HIZKUNTZA PAISAIA	
BALIABIDE INFORMATIKOAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• <u>INIK</u>: elebitan dago, baina erabilera gazteleraz ezarria dute Udal Musika Eskolako langileen ordenagailuetan.</li><li>• <u>Posta</u>: gazteleraz daude konfiguratuta.</li><li>• Kutxabanken <u>Fakturen programa</u>: gazteleraz.</li><li>• <u>Eusko Jaurlaritzarekin zerbitzua kudeatzeko programa</u>: gazteleraz.</li></ul>
BALIABIDE FISIKOAK (ETA DIGITALAK)	<ul style="list-style-type: none"><li>• <u>Kartelak</u>: elebitan</li><li>• <u>Eskuorriak</u>: elebitan</li><li>• <u>Ohar edo komunikazioak</u>: elebitan.</li><li>• <u>Zentroko guneak bereizteko kartelak</u>: elebitan</li><li>• <u>Webgunea</u>: elebitan</li></ul>
IDENTIFIKATUTAKO AUKERAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Musika irakasleak kontratatzean hizkuntza irizpideak ezartzea</li><li>• Langileen harrera gida ekoiztea, hizkuntza irizpideak ezagutu eta barneratzeko</li><li>• Udal Musika Eskolako hizkuntza irizpideak finkatu eta partekatzea</li><li>• Musika irakasleei euskara ikasteko baliabideak eta erraztasunak eskaintzea.</li><li>• Izen emate fitxetan hizkuntza ezagutza jartzea partaide edo interesdunek.</li><li>• 5 urtetik 60 urtera bitarteko ikasleak dituztenez, eskola adinean daudenen artean euskara ezagutza bermatzeko musika irakasleen lan poltsa osatzea.</li><li>• Klaustroak gazteleraz direnez, interpretazio zerbitzua eskaintzea aztertzea, hizkuntza eskubideak bermatzeko (eta elebitasuna) bermatzeko.</li></ul>

## HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

Amurrioko Udal Musika Eskolan azaleko diagnostikoa osatuta, IV. Euskara Planaren baitan ondorengoak izango dira helburuak:

- Udal Musika Eskolako postuetan hizkuntza gaitasuna eskakizun bilakatzea.
- Udal Musika Eskolaren zerbitzu hizkuntzan euskararen presentzia areagotzea. Euskarazko taldeen eskaintza %50 izatera iristea.
- Udal Musika Eskolako langileak euskalduntzeko ikasketa baliabideak eta erraztasunak eskaintzea behargin horiei.
- Zerbitzua euskaraz jaso nahi duten herritarren erolda osatzea, eta horren arabera egokitzea eskaintza.
- Udal Musika Eskolako langileen artean euskararen ahozko erabilera sustatzeko motibazio saioak antolatzea.
- Udal Musika Eskolan euskararen idatzizko erabilera indartzeko dokumentuak elebitan ekoizteko ereduak sortzea Euskara Zerbitzutik.

Guzti hau kontuan hartuta, ondorengo ekintza plana proposatzen VI.Plangintzaldian zehar garatzeko, Amurrioko Udalaren IV. Euskara Planean gauzatzeko asmoz.

## EKINTZA PLANA

---

1. Udal Musika Eskolako I. Euskara Plana gauzatzea
2. Udal Musika Eskolako hizkuntza irizpideak finkatzea (Musika irakasleak kontratatzean hizkuntza irizpideak ezartzea eta beste)
3. Udal Musika Eskolako 17 langileen hizkuntza gaitasuna handitzea, horretarako irakasleei euskara ikasteko baliabideak eta erraztasunak eskainita. Alegia, udal langileen eskura jartzen diren ikasketa aukerak bertako langileen artean ere zabaltzea eta sustatzea.
4. Eskola adinean dauden ikasleen musika irakasleek euskara ezagutza izatea bermatzea, eta horretarako beharrezko musika hezitzaileen lanpoltsak zabaltzea.
5. Matrikulazio kanpainan eta ikasturtean zehar, euskarazko eskaintza balioan jartzea eta ikusgarritzea (ikonoren batekin).
6. Udal Musika Eskolako klaustroetan euskararen presentzia bermatzea, interpretazio zerbitzua eskainita herritarren hizkuntza eskubideak (hots, elebitasuna) bermatzeko.
7. Udal Musika Eskolako idazkietan elebitasuna bermatzeko eta errazteko dokumentuen ereduak sortzea, Euskara Zerbitzuekin elkarlanean.